ARKO

ELKARRIZKETA: DOMINIKA MADINABEITIA CIM-EKO IRAKASLEA

# Arrasate PRESS

1999ko Maiatzak 14
451. zenb.



# Herrigintza gailurrean

SJB Batzorde Eragilea

IKUSPEGIA: JM VELEZ DE MENDIZABAL • KIROL GAIA: GIMNASIA ERRITMIKOA
EUREN IKUSPUNTUTIK: M. ASUN BARANDIARAN • KULTURA: ARITZ IÑURRITEGI




ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK





BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA • LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxa: 943 79 41 82

**ARRASATE**

# Iokin Zaitegi: 20 urte hil zela

Hogei urte izango dira laster gure artetik desagertu zela. Iokin Zaitegiri nagokio, arrasatear idazle handia, gure herrian sorturiko bikainena, nonbait. Bat ere esfortzurik gabe, Erdiko Kaleko bere etxean izandako solasaldi bizi eta luzeak gogoratzen ditut oraindik ere, gaileta batzuk eta whisky basoerdi bat mahai gainean, mundu honetako bere igaroaldiari buruzko aleak zerbitzatzen zizkigun bitartean, hain zuzen ere urte batzuk geroago bere biografia osatzen lagungarri gertatuko zitzaizkidan pasarte paregabeak.


JM Velez de Mendizabal

Eta askotan gertatu zaidan bezalaxe, oraingo honetan ere pregoilari gisa aritu beharra daukat, dagokienari efemeridea gogorarazteko, 1979ko abuztuaren 17an hildako azken euskal kixoteari oraindik zor zaion omen eta ohorearen zorra behar bezala kita ote dakiokeen pentsa dezatela erregutuz. Arrasateko herriari dagokio Iokin Zaitegiren irudi erraldoia goratu eta aldarrikatzeko betebeharra. Nekez jaioko da beste inor Euskal Herri osoan, Zaitegik adina adore eta kemenik erakus lezakeena, euskal izaera integralaren bilakuntza burutsuan. Iokin Zaitegirekin euskal literaturaren kondairako orrialde loratsu bat itxi zen.

**“Arrasateri dagokio Zaitegiren irudi erraldoia aldarrikatzea”**

Pena handia ematen dit, gure herriko eskola eta ikastoletan Zaitegik euskal literaturan lorturiko maila ez dela erakusten ikusteak. Amorru bizian erantzun dut, adiskideen seme-alabek itaundu ohi didatenean Lizardi, Lauaxeta edo Orixeren obrari buruz, euren herkide dutenaren gainean ezer gutxi jakin gabe. Badirudi txilindroiaren politikak hondamen izugarriak eragin dituela maisu-maistren artean ere eta guztientzako kafea ei da, lasaitasun osoz jarraituriko irakas-sistema, bide bazterrean zer uzten ari den bost axola zaigularik.

Iokin Zaitegi euskal literaturarako bi belaunaldiren arteko zubi sendoa izan genuen, eta horren eraikitze ahaleginetan bizia arriskatu zuen, apustuzale itxaropentsuaren estilorik bikainenean. Berrogeita hamar urtean euskara eta aberria uztartu zituen, izerdi frankoren osteko uzta inoiz gauzatuko ote zitzaion esperantzan. Eta, gorago nioen bezala, bizitzan kixote izateari egokitu zaien guztioi legez, berea kimera eder besterik ez ote zen ezagutu gabe utzi gintuen betiko. Etsita, nonbait, bere amets utopikoetan.

Belaunaldi oso bat hazi da gure artean Zaitegi fisikoki galdu genuenetik. Gaurko gizarteak zerikusi txikia du 1979koarekin. Baina zalantzak hortxe jarraitzen duela uste dut, azken kixote haren ahaleginak ezertarako merezi izan ote zuen galdegin nahi baligu bezala. Arrasateko herria erantzuna bilatzen saiatu beharko litzateke, bere seme haren ametsa gainditua den, ala —aitzitik— bere indarrean ote dirauen argitzeko. ■

*“Parrokiako teilatua zegoenetan berreskuratu nahi izatea astakeria hutsa zen; Kapirixok nahi zuena egin balitz, parrokia inoiz ez zen zaharberrituko”*

**Alfonso Gorroñogoitia**

# 403

**lanpostu fijo sortuko ditu Fagorrek aurten**

Fagor Elektratresnak, Fagor Industrial, Fagor Arrasate eta Fagor Automationen artean 403 lanpostu fijo sortuko dituzte aurten. Horietatik 200 Garagartzako fabrikan sortuko dira.

ITURRI ONETIK

## Pipar eta Tomate

Pipar eta Tomate ez dira desagertu. Parrokiako kanpandorrean daude, egoera onean, SJB elizarenak diren beste hainbat irudirekin: S. Ignazio, S. Frantzisko Xabier, S. Pedro, Kaifas, etab., etab.

Pipar eta Tomate Aste Santuko prozesioetan erabiltzen ziren bi irudiren izenak dira. Kristo flagelatzen agertzen ziren, bata praka gorriekin eta bestea berdeekin. Arrasateko jendeak *katxoborratxoak* deitzen zien.

Urtetan desagertuta egon dira, hautsa eta ugerra artean. Orain, txukun-txukun daude kanpandorrean atondu den tokian. Merezi du bisitatzea.

ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@readysoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Zuzendaria**: Joxe Aranzabal. **Kazetariak**: Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea**: Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroiabe. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Administrazioa**: Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua**: Maddi Trutxuelo. **Asteburuetako berriemailea:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak**: Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal . **Banaketa arduraduna**: Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28).
©ARRASATE PRESS.
**Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azala**: Marijo Deogracias.

Arrasateko Udalaren laguntzaz | Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz | Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**Ostirala, 14**
• Gauez eta egunez: Amezua, Santa Marina

**Larunbata, 15**
• Gauez eta egunez: Zabala, Zarugalde

**Igandea, 16**
• Gauez eta egunez: Ruiz, Maala

**Astelehena, 17**
• Gauez eta egunez: Morales, San Andres

**Asteartea, 18**
• Gauez eta egunez: Azkoaga, Ferrerias

**Asteazkena, 19**
• Gauez eta egunez: Español, Iturriotz

**Osteguna, 20**
• Gauez eta egunez: Korkuera, Musakola

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualatorioa .......... 943 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) ............ 943 79 39 00
(emakumeak) ........ 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

**Gurutze Gorria**
Bergara ............. 943 76 55 76

**DYA**
Antzuola ............ 943 78 71 57

**Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak) ... 943 03 53 00
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak....... 943 03 53 11
• ikuskatzailea ........ 943 03 53 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
• Fax zenbakia: 943 03 05 14
Aretxabaleta ......... 943 79 74 58
Aramaio ....... (945) 943 45 51 16

**Anbulantziak**
Gipuzkoako anbulantziak 943 45 87 44

**Udaltzaingoa**
Oñati ................. 943 78 04 11
Bergara ............. 943 77 91 06
Arrasate ............. 943 79 14 39
Aretxabaleta ......... 943 79 10 52
Eskoriatza .................. 088

**Ertzaintza**
Arrasate ............. 943 79 71 99

**Suhiltzaileak**
Udal taldea .......... 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

**Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62
Gasa ................ 900 40 05 23
..................... 943 79 78 44
..................... 943 79 76 78

**Garraioak**
Taxiak .............. 943 79 12 22
PESA. .............. 902 10 12 10

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza........ 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

**Monterron liburutegia**
Monterron ............ 943 77 01 05

**Irratia**
Arrasate Irratia ........ 943 79 58 77

## JUSTIZIA EUSKARAZ!

Nik, Euskal Herrian Euskarazek, euskal nortasun agiria duenak eta Arrasaten bizi naizenak, Justizia Administrazioan gertatzen dena salatu nahi dut.

Epaitegietan edozein eskaera egiteko garaian nire hizkuntza eskubideak urratuak izaten dira:

• Epaileek eta fiskalek ez dute, orohar, euskara ezagutzen eta, beraz, ez dute ulertzen zuzenean nik adierazten dudana.

• Funtzionarioengan euskararen ezagutza berdina topatzen dut orohar, horrek Justizia Administrazioaren aurrean ia ezinezko bilakatzen duelarik neure hizkuntzan aritzea.

• Igortzen diren idazki, inprimaki eta ohartarazpen guztiak gaztelaniaz izaten dira eta bakarrik horrela eskatuz gero, atzerapenarekin jasotzen dira euskaraz. Eta ez beti.

• Euskara, bere azalpen guztietan, bigarren mailako hizkuntza dela bere herrian, Euskal Herrian, lanean dabilen Justizia Administrazioan. Eta, ondorioz, euskaldunok bigarren mailako herritar bezala tratatzen gaituztela sistematikoki. Gure hizkuntza eskubideak urratuak izaten dira.

Egoera honek jarraipena izan dezakeelako, arrasatear guztiak animatu nahi ditut nirekin batera Bake Epaitegian hemen egin dugun salaketa aurkez dezaten, maiatzaren 28an, ostirala, arratsaldeko 13:00etan. Euskarak merezi duelako.

*Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz*

## ESKERRIK ASKO

Berba hauen bidez eskerrak eman gurako genizkizue, joan zen zapatuan, gure jaian, Arrasateko Ikastolaren egunean parte hartu zenuten guztioi, zuek gabe ezin izango genuelako ganoraz ospatu.

Guretzat historikoa izan zen eguna. Izan ere San Frantzisko Xabier eta San Viator ikastolek abian jarritako bateratze prozesua errealitatea dela aldarrikatu nahi baikenuen. Horrela, festan murgildu gura izan genituen bi ikastoletako jende multzoak elkarrekin jardunez: ikasleak, langileak, gurasoak, laguntzaileak eta herritar guztiak.

Erabat arrakastatsua izan zen guztia. Jaiak behar zuen bezala irten zuen.

Horregatik, eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Lehendabizi eskerrik asko laguntzera etorri zineten guztioi; ondoren jaia ospatu ahal izateko laguntza eta babesa eman zenutenoi (Arrasateko Udala, Arrasate Kirolak, Al Andalus, Corazón de Encina, Diario Vasco, Ebel, Ekin, Galiziako etxea, Harreman, Lore Gazteak, Natalio Maiztegi, Saski Baskonia, Txatxilipurdi, Txikitxu-Arrostaitz); festan parte hartu zenuten guzti-guztioi eta azkenik barkamenak eskatu sor genitzakeen eragozpenengatik.

Eskerrik asko eta hurrengo urtea arte.

*Elena Errasti eta Itsaso Nuin*
*San Frantzisko Xabier eta San Viatorreko zuzendariak*

## Diru kontularia



Hiruzpalau bat aste badira Maite Urriolabeitia, 24 urteko markinarra Arkon dabilela administrazio lanetan laguntzen.

Enpresa eta Administrazio ikasketak egiten ari da Oñatiko ETEOn eta praktikak egitera etorri da. Hemendik aurrera, bada, berak eramango ditu hemengo zenbakiak.

Agur eta eskerrik beroenak orain artean lan hori hain ondo bete duen Gurutze Uribarreni. Maiteri, berriz, ongi etorri!

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

# Zer egin du ondo Udalak?

*Ekainaren 13an udal hauteskendeak egingo dira.*



**Oti Grande**
**(40 urte)**
**Etxekoandrea**

Ez dakit, ezin dizuet ezer esan. Ez dut segitzen Udalak egiten duena.



**Pilar Zalama**
**(73 urte)**
**Erretiratua**

Zerbait ona egin duela uste dut: Altamiraraino egin duten oinezko pasabidea eta Santa Barbarako konponketak.



**Sergio Hernando**
**(22 urte)**
**Dendaria**

Estetikoki zaintzen saiatu dira, batez ere alde zaharra.



**Jose Mari Astigarraga**
**(60 urte)**
**Parrokoa**

Hirigintzan oinezko pasabideak, biribilak… Parrokia, ondare garrantzitsua konpontzen ere lagundu digu.



**Jabi Guardo**
**(20 urte)**
**Ikaslea**

Nire ustez, gazteoi ez digu ekarpenik egin.



**Agustin Otadui**
**(46 urte)**
**Administratiboa**

Ezin dut ezer zehaztu, baina puntuatu beharko banu, sei bat emango nioke.



**Miren Uribesalgo**
**(40 urte)**
**Irakaslea**

Herriaren itxura hobetzeko lana egin du eta auzoetan ere lan handia egin du horretan.



**Elizabeth Alonso**
**(20 urte)**
**Langilea**

Nire ustez, ez dio ezer ekarri herriari.


JUBAR
ATEAK. S.L.®
• BURDINAZKO ATEAK ETA PERTSIANAK.
• AUTOMATISMOAK.
• KONPONKETAK.
Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
• Sukalde altzariak
• Armairu enpotratuak
• Trastelekurako armairuak
Fabrikan erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiraletan
5etatik 8etara.
Tel.: 943 79 26 99

OSORIK PUB
Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

## 14 ostirala

**■ ZINEA**

*Lock and Stock*, Alai zineman, 19:00etan eta 22:00etan.

**■ SAN ISIDRO JAIAK**

**19:00**etan txalaparta erakustaldia Gazte Txokoan.

**19:00**etan ikurrina igotzea, buruhandiak eta gaiteroak. Alkatetzatik gozokien jaurtitzea.

**19:30**ean auzoko erretiratuentzako afaria Kataiden.

**23:00**etan *Irailerako 6* taldearen kontzertua.

**24:30**ean dantza erakustaldia.

**24:00**etan *Wood-By-Ser*.

**■ SJB ELIZA GOTIKOA**

San Joan Parrokiaren zaharberritze prozesuaren inguruko hitzaldia Jose Angel Barrio Loza Deustuko Unibertsitateko Arte katedradunak eskainita. Saioa 20:00etan.

**■ AL ANDALUS ELKARTEAN**

X kultura astearen barruan, *The Jurassic Band* taldeak 19:00etan joko du, Poesia emankizuna 20:30ean, *Goikobalu* abesbatza 22:00etan eta Natalio eta bere eskolako dantzarien dantzen emankizuna 22:45ean, elkartean bertan.

## 15 larunbata

**■ ZINEA**

*La novia de Chucky*, Alai zineman, 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

**■ SAN ISIDRO JAIAK**

**11:00**etan eskuz binakako pilota txapelketa: *Andres Lezeta-Langaran; Pedrito-Vitoria* eta *Txikuri-Txispas*.

**11:30**ean meza nagusia San Isidron.

**11:30**ean San Isidro I Herri Krosa.

**12:00**etan herri txikiteoa, soinujoleekin.

**12:00**etan motorzaleen bilkura.

**13:30**ean urrezko astokiloen banaketa.

**14:00**etan auzoko zaindariaren omenezko bazkaria izango dute baserritarrek. Ondoren, kale ageraldi ofiziala.

**14:30**ean herri bazkaria Kataiden.

**16:00**etan VIII Xake Irekiko txapelketa.

**17:00**etan kalejira.

**17:30**ean San Isidro sokatira nagusia.

**18:00**etan San Isidroetako II Futbito Txapelketako finala Santa Mañako SFX ikastolako patioan.

**19:30**ean buruhandien eta gaiteroen irteera.

**23:00**etan dantzaldia *Suan Blai* taldearekin.

**■ KAIOLAKO GALEPERREN TIRAKETA**

Leintze elkartearen Kaiolako galeperren tiraketa San Kristobal hilerriaren ondoan. 11:00etatik 12:00etara entrenamendua. 12:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara tiraketa. 50.000 pta daude jokoan. Izen ematea 2.500 pta Leintzeko bazkideentzat eta 3.500 ez bazkideentzat.

**■ ANDALUZIAR ASTEA**

Al Andalus elkartean San Isidroetako I Herri Krosa egingo da 12:00etan. 16:00etan gora-behera txapelketa eta 19:00etan Andaluziako jantzi tradizionalen desfilea. 22:00etan herri afaria eta 24:00etan dantzaldia.

**■ KONTZERTUA GAZTETXEAN**

*Brutal Melody* taldea arituko da *Storbais* eta *Brigada Slame* taldeekin batera gaztetxean 21:30eatik aurrera. *Brutal*eko Juan bateriajoleak taldea lagako duela eta, agur kontzertua izango da. Gainera talde sorpresa ere egongo da. Adi beraz!

**■ JAM ARETOAN**

*EH Sukarra*k taldeak kontzertua eskainiko du Bergarako Jam aretoan eta hantxe bere azken lana aurkeztuko du. Saioa 22:00etan hasiko da *Tubatu* taldearekin emankizunarekin. Sarrera aurrez 1.000 pta eta hantxe 1.200 pta kostako da.

## 16 igandea

**■ ZINEA**

*La novia de Chucky*, Alai zineman, 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

**■ SAN ISIDRO**

**10:00**etan buruhandien eta gaiteroen irteera.

**11:30**ean Musakolako XV Txirrindularitza Saria.

**12:00**etan gimnasia erritmikoko erakustaldia.

**12:30**ean txkiteo alaia.

**18:00**etan herri kirolak (Iñaki Perurena eta bere semea) eta Gorritiren animaliak.

**19:30**ean *Anger, Iskanbila* eta *Des-Kontrol* taldeen musika emanaldia.

**24:00**etan azken traka eta jaien amaiera.

**■ KULTURA ASTEA**

Al Andalusen kultura astearekin amaitzeko, 12:00etan domino eta gora-behera txapelketa. 13:00etan luntxa eta sari banaketa eta 19:00etan *Al Andalus* abesbatza errozieroa.

**■ KONTZERTUA JAM ARETOAN**

*Avalanch* eta Arrasateko *Eternal Night* taldeen musika emanaldia Bergarako Jam aretoan 20:00etan. Sarrera 1.300 pta.


ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK
*Basabe Industrialdea 4, EQ- 11 • ARETXABALETA*
*Tel/fax. 943 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26*

Recuperación
Alkoholarekin arazoak dauzkazu? Agian, "Alkoholzale Anonimoek" lagundu ahal dizute!!
**Alkoholzale Anonimoak**
3. eremuko Informazio bulegoa (Gipuzkoa) • Tel.: 943 61 93 38

# 17 astelehena

■ **ZINEA**

*La novia de Chucky*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

■ **EUSKAL MISIOAK ERAKUSGAI**

San Viator ikastolan Euskal Misioetako Erakustaldia irekiko dute arratsaldeko 17:00etan. Erakusketa maiatzaren 21a arte egongo da zabalik, 17:00etatik 20:00etara.

# 18 asteartea

■ **ZINEA**

*La novia de Chucky*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 22:00etan.

# 19 asteazkena

■ **BILERA ALMENEN**

Almen Ikastolak Ate Irekiak ekintza antolatu du DBHko azkenengo urteko ikasle eta gurasoentzat. 18:00etan bilera izango da Almenen. Gaia: "Batxilergoa eta Heziketa Zikloak, Hezibideren proiektu berrian".

■ **MENDI IRTEERA EMANALDIA**

"Iparraldeko I Espedizioa Gasherbrum IIera" irteeraren inguruko ikusentzuneko saioa eskainiko da Amaia antzokian, 19:30ean.

# 20 osteguna

■ **ZINEA**

Sexualitateari buruzko zine zikloaren barruan *Fuego* filma eskainiko da Amaia antzokian, 21:30ean. Sarrera 450 pta kostako da.

■ **ARRASATEKO IKASTOLA**

Arrasateko Ikastolak DBHko azkenengo urteko ikasle eta gurasoentzako informaziorako Ate Irekiak ekintza antolatu du arratsaldeko 16:30ean. Bilera bat ere izango da 18:00etan, San Viatorren. Gaia: "Batxilergoa eta Heziketa Zikloak, Hezibidearen proiektu berrian".

■ **METEOROLOGIA MINTZAGAI**

Mendi meteorologiaren gaineko ikusentzunekoa antolatu du Arrasate Ikastolak, 19:30ean, Gloria Latasa geografoak emanda, Monterronen.

■ **ARRASATEKO EMAKUMEEN ASANBLADA**

"El mito de la vida privada" hitzaldia antolatu du Arrasateko Emakumeen Asanbladak udaletxeko osoko bilkura aretoan. Hizlaria Soledad Murillo izango da Salamancako Unibertsitateko irakaslea. Saioa 19:30ean izango da.

■ **KATEKESIRAKO DEIALDIA**

Katekesi eskolak matrikulaldia ireki du. 1993an jaiotakoek izena eman dezakete San Joan eta San Frantzizkon astelehenetik ostiralera (10:00 - 14:00 eta 08:30- 19:00).

■ **FAGOR GARBIGAILUAK**

Fagor Garbigailuetako bazkideek 25. urteurrena ospatuko dute maiatzaren 15ean. 20:30ean foto ofiziala Mondragon Hoteleko eskaileretan. Afaria 21:00etan.

■ **YOGA IKASTAROA**

*"Gimnasia Energetikoa"* ren inguruko ikastaroa, maiatzaren 19tik ekainaren 16ra, asteartero 19:00etatik aurrera. Izen ematea elkartearen egoitzan edo 943 79 88 53 an edo 608 57 50 29an.

■ **MENDI IRTEERA**

Besaidek antolatuta, Kanpazar-Intxorta-Elgeta mendi irteera maiatzaren 23an, Euskal Herriko Mendi Federakundearen 75. urtemuga ospatzeko. Han *Mendirik Mendi* egitasmoan aritu diren bost makilak bilduko dituzte. Izen ematea maiatzaren 18, 19 eta 20an, Besaideren egoitzan, 19:30eatik 20:30eara.

■ **47KO SOLDADUGAIAK**

Maiatzaren 22an anaiarteko eguna ospatuko dute. Bazkaria Udalpen 14:30ean. Interesatuek deitu: 943 79 52 59 (Cipriano), 943 79 12 55 (Eduardo), 943 79 24 69 (Angel) maiatzaren 18a arte

■ **BONBA TALDIEREN AFARIA**

Maiatzaren 24an egingo da Bonba Taldieren afaria. Izena emateko Iratitik pasa. Bazkideentzako bakarrik eta 2.500 pta.

■ **64. URTEMUGA**

1935ean jaiotakoek kinto eguna dute maiatzaren 22an. Meza parrokian, txikiteoa eta afaria eta dantza Mondragon Hotelean. Izen ematea Murua Gozotegian maiatzaren 15a baino lehen.

■ **LA MERCED-EKO IKASLE OHIAK**

Ekainaren 5ean elkartuko dira La Merced ikastetxean ikasi duten ikasleak. Izena emateko Lore lurrindedatik pasatu (Marisa), maiatzaren 27a baino lehen.

## LAN ESKAINTZA

Arrasateko Udalak aldi baterako lanpostu hauek bete nahi ditu:

- Liburuzain laguntzailea
- Gizarte laguntzailea

**Oinarriak:** Udaletxean jaso daitezke.
**Eskaera aurkezteko epea:** 99/5/25ean, berau barne.

ARRASATEKO UDALA — **Pertsonal Saila** ■

## USTEAK USTE

### *SJB eta herrigintza*

**San Joan Bataiatzailea eliza zaharberritzeko lanak bukatutzat eman daitezke. Bihar egingo da lanak hasi ondorengo inaugurazio ekitaldia eta hilaren 30ean lanok zuzendu dituen batzorde eragileak amaitutzat joko du berea.**

**Bederatzi urte egin ditu jo eta ke lanean, astelehenero bilduz eta han-hemenka mila gestio eginez. Eztabaidatu egin dute, ikasi, aholkua eskatu eta zuhurtasunez jokatu, Arrasatek berreskura zezan XIV mendetik zaharkituta eta desitxuraturik zuen ondarerik inportanteenetariko bat: parrokia.**

**Emaitza begi bistan dago. Parrokia inoiz baino ederragoa geratu da, bere jatorrizko gotikotasuna agerian, zut eta harro, herriaren bihotzean. Kanpandorrea ere bisitatzeko moduan geratu da: txukun eta dotore.**

**SJB Batzorde Eragilea osatu duten mondragoetarrek herrigintzaren exenplurik ederrena eskaini digute. Eskuzabaltasunez jokatu dute denona den ondarea berreskuratzeko. Zorionak eta eskerrik asko!**

**Joxe Aranzabal**



# Ibilaldia 99

*** Mª Asun Barandiaran**

Ibilaldia, Bizkaiko ikastolen jaia, aurten Elorrion egingo da. Elorrioko Txintxirri Ikastolari dagokio antolatzea. Baina esan behar da beste lau ikastolarekin elkartuta gaudela, Ibilaldia 99koaren helburua Durangalde eta Lea-Artibaiko ikastolen artean ikastetxe berri bat sortzea baita.

Ikastetxea Ibaizabal Koop. Elkartea da. 1999-2000 ikasturtean lanean ipiniko da, Durangon. 16-20 urteko gazteentzako heziketa eskainiko du, ikastolaren ereduan.

Nolabait esateko, Ibaizabal kooperatiba ikastolen jarraipen logikoa da. Duela berrogei urte ametsa zirudiena, egia bihurtuz, Euskal Herriko hezkuntza sisteman euskarazko heziketarako esparru berriak landuz.

Elorrioko Ibilaldiaren helburua, beraz, proiektu honetarako dirua lortzea da.

Dagoeneko Ibilaldiaren eguneko ekitaldi guztiak zehaztuta daude. Eguna zoragarria izango da. Duda barik, eta barkatu nik esatea, orain arte izandakoen artean Ibilaldirik ikusgarriena izango da geurea. Zirkuituak zazpi kilometro ditu eta Elorrioko herria eta inguruko auzoak zeharkatuko ditu, paraje ezin ederragoak erakutsiz.

Elorriok betidanik izan ditu harreman onak bai Arrasaterekin bai eta Leintz Bailarako jendearekin ere. Elorriarrek biziki gogoratzen dute gure Udal Banda Elorrioko kaleetan zehar jotzen, dotore-dotore, edo Elorrioko Ferixa Nagusietan gure herriko zezenzale famatuak etortzen zirenean: Luisito, Jesusito, Barbertio, Niño de la Gaseosa… ahaztu ezinezko izenak, ezagutu genituenentzat.

Oraingoan ere, guregana etortzeko aukera duzue. Nahi duzuenok bizkar zorroa hartu, Udala auzora igo, Udalatxetik Besaidera joan, gero suabe-suabe jaisteko Elorriora. Anima zaitezte, auto eta autobus gutxiago izango dugu-eta horrela aparkatzeko.

Dena dela, Kanpazar gainetik baldin bazatozte, Elorrioko sarreran aurkituko duzue jende jatorra nora joan, non utzi ibilgailua eta bestelako argibideak emateko prest.

Eta amaitzeko, Ibilaldia baino lehen edo Ibilaldiaren egunean bertan lagundu nahi baduzue, jar zaitezte harremanetan gurekin, Elorrioko Txintxirri ikastolara hurbildu edo deitu telefono honetara: 946 58 20 02 eta Estherrez galdetu.

Etor zaitezte, ekainaren 6an. Guztiok zaudete gonbidaturik. Musu handi bat nire herriari.

**“Elorriok beti izan ditu harreman onak Arrasaterekin. Gonbidatuta zaudete ekainaren 6ko jaira”**

* Ibilaldia 99ko Kultura arduraduna

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

Hilbera kafetegia
Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

ZUBIZARRETA LANTEGIAK
Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

# Baserri girotik hirira

**Musakola auzoan jai-giroan sartuta izango dira honez gero. San Isidroak betebetean dira orain eta horrexegatik pentsatu dugu auzo horri buruz zertxobait gehiago kontatzea. Honetarako, Juan Ignacio Biain auzo alkatearekin eta Benito Barandiaran, Simon Arregi eta Felix Ajuria auzokideekin egon gara berbetan.**

**JAIAREN JATORRIA**

Bitxia da auzotarrek nola erabaki zuten jai hauek ospatzea. 1923. urteko maiatzaren 15a zen orduan. Egun horretan, Eskola Bateratua ireki zen.Pedro Izagirrek, parrokiako apaiz laguntzaileak bedeinkatu zuen Eskola. Juan Gorosabelek, orduko auzo-alkateak, aurreskua dantzatu zion Elisa Lasari, Eskolako andereño izango zenari. Eta ondoren ospakizun bazkaria egin zuten auzoko familia buruekin, herriko alkatearekin eta maisu Aranorekin batera. Guztien artean erabaki zuten ordutik aurrera San Isidroak izango zirela auzoko jaiak.

**ZAINDARIA ETA ELIZA**

San Isidrorena da auzoko eliza, benetan ezaguna, batez ere ezkontzetan. Zigorrola Azpikua izeneko baserriaren ortuen lurzatian eraiki zen. 1923. urtean, Zerrajeraren lehenengo etxeak egiten hasi zirenean auzokideekiko kezka sortu eta hasieran kaperatxo bat zena 1945. urteko maiatzaren 15ean inauguratu zen eliza. Auzoko elkarte gastronomikoak ere zaindari bera omentzen du eta gainera, 1929an Antonio Armengou maisuak emandako San Isidroren irudia gordetzen du bere hormen artean.

**ORAINGO EGOERA**

Musakolak edo "Ziorlak" nagusiek esaten dioten moduan, 2.600 biztanle batzen ditu. IFAMeko etxeak egitean gehiago izango dira. Legargainetik Etxezarretarainoko lur zatia hartzen du auzoak. Jatorrizko izena Zigorrola da, baina ez dago oso argi nondik datorren eta ezta zergatik orain Musakola deitzen zaion ere. Dakiguna da orain urte batzura arte Zigorrola Azpikua eta Zigorrola Gañekua izeneko bi baserri zeudela.

Auzoaren aldaketa, baina, batez ere izan duen hazkundetik etorri da. Gutxi gorabeherako bat emateagatik, 1900. urtean 25 etxebizitza egotetik, 1970ean 1.075 etxebizitza izatera pasatu zen.

**A-20 gunea:** hirigintza aldetik zeharo itxuraldatu da auzoa azken urteotan eta bide bera jarraituko du datozen urteetan. Orain, A-20 gunea da horren eragile zuzena. Izan ere, udalaren egitasmoa da Arrasateko industria gune handi bat han kokatzea eta dagoeneko hasi dira pabilioi industrial berriak eraikitzen.

**Etxebizitza gehiago:** IFAM lantegiaren lurzatian egin behar diren etxebizitzen ondorioz, auzoa nabarmen handituko da, Obenerrekaraino heldu arte.

**Kiroldegia:** kiroldegiak berrikuntza nabarmena izango du.

**Zirkulazioa:** asko aldatu da egoera errepide ondoan erromeriak egiten zirenetik. Orain lau semaforo berri ipintzekotan dabiltza autoen jario etengabea dela eta.

Orohar, "baserri auzoa izatetik zerbitzu, lantegi eta etxebizitzadun auzo izatera pasatu da, honek dituen alde on eta txarrekin.

Izan ere, orain, nahasketa da nagusi auzoan: baserriak, etxebizitza blokeak, eskolak, elizak, sektore askoko lantegiak, gasolindegiak, auto saltokiak, tabernak, dendak, kiroldegia, kultura elkarte, gastronomikoa... Ondorioz, sortzen ari diren beharren aurrean, udalak erantzun berriak eman behar izango ditu. Izan ere, ez dago auzorik Arrasaten, Zigorrolakoa baino azpiegitura konplexuagoa eta orotarikoa duenik.



**Zigorrolarekin hain lotuta dagoen astoari monumentoa egingo diote.**

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarteko hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

TOKION
ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN SALMENTA
Erdiko Kale, 7
Tel.: 943 79 91 64 • ARRASATE

## Zerrendak

**EAJ-PNV-EA**
1. Jose Maria Loiti
2. Amaia Larrañaga
3. Maria Angeles Iñurritegi
4. Juan Antonio Barriocanal
5. Itxaso Garai
6. Jose Maria Urizar
7. Javier Aresti
8. Andoni Kepa Bedialauneta
9. Isabel Urrutia
10. Enrique Loiti

**EUSKAL HERRITARROK**
1. Xabier Zubizarreta
2. Ino Galparsoro
3. Utzune Urrizalki
4. Juan Luis Arexolaleiba
5. Juan Ramon Garai
6. Jose Ramon Arkauz
7. Haritz Azkarraga
8. Larraitz Trojaola
9. Juan Jose Saenz
10. Juan Ignacio Biain

**PSE-EE**
1. Francisco Garcia
2. Blanca Roncal
3. Matilde Martin
4. Ismael Gonzalez
5. Petra Romero
6. Isaias Carrasco
7. Gregorio Atxutegi
8. Martin Garcia
9. Rafaela Romero
10. Juan Carlos Bañuelos

**EZKER BATUA**
1. Joseba Ugalde
2. Julian Ito
3. Marisa Uriarte
4. Angel Tijero
5. Paco Duque
6. Virginio Hernandez
7. Pepa Iglesias
8. Angel Duque
9. Marino Yuste
10. Jose Antonio Baz

**PARTIDU POPULARRA**
1. Antonio Palacios
2. Jose R. Prieto
3. Juan Jose Garcia
4. Jose Manuel Fanjul
5. Juanjo Arrospide
6. Silvia Barrera
7. Mª Angeles Campesino
8. Juan Ignacio Fabregas
9. Jose Manzanares
10. Segundo Sierra

# PSE-EE: Arrasate, zure hiriburua

**Maiatzak 7.** Oraingoan sozialistak izan dira lehenak zerrenda aurkezten. Mondragon Hotelera joan ziren. Paco Garcia izango da zerrendaburua eta Blanca Roncal bigarren. Aurkezpen ekitaldirako Jesus Egiguren Gipuzkoako burua eta Gillermo Etxenike diputatua etorri ziren. "Esperientzia, gaztetasuna, kudeaketa". Hitz horiekin definitu zuen Pacok bere zerrenda.




# Euskal Herritarrok herriko plazan

**Maiatzak 10.** Xabier Zubizarreta EHko alkategaiak Karmele Aierbe HBko Mahai Nazionaleko kidearen laguntza izan zuen astelehenean. Oso eszenografia zainduarekin —plazan zeuden aulkiek EH hizkiak marrazten baitzuten— Deba Garaiko zerrendaburuak eta Arrasateko hautagai guztiak aurkeztu zituzten. Berritasunik handiena, akaso, Juan Ramon Garairena izan daiteke, ESKko sindikalista bosgarren baitoa zerrendan.




# EAJ-PNV-EA: ilusioaren garaia

**Maiatzak 11.** EAJ-PNV-EA koalizioak Monterron jauregia aukeratu zuen bere zerrenda aurkezteko. Joseba Egibar eta Jon Goikoetxea burukideak etorri ziren hautagaiei babesa ematera. Lehen aldia da EAJ zatitu zenetik, indar biak batera aurkezten direla hauteskunde batzuetan. Horregatik, beharbada, ilusioa izan zen gehien aipatu zen hitza. Jose Mari Loiti alkategaiak Amaia Larrañaga eta gainerako hautagaiak izan zituen ondoan.



# Jabier Retegi, MUko errektorea

Mondragon Unibertsitateak errektore berria du: Jabier Retegi. Erabakia unibertsitateko Kontseilu Errektoreak hartu zuen asteazken arratsaldean egindako bileran. Jabier Retegik Ignacio Lakunza ordezkatuko du errektore moduan. Berak eramango du Mondragon Unibertsitatea XXI mendera.



Mondragon Unibertsitateko Kontseilu Errektoreak bilera garrantzitsua egin zuen asteazken arratsaldean. Bi ordu geroago, erabakia kalera irten zen. Mondragon Unibertsitateak errektore berria izango duela, alegia. Jabier Retegik hartu du orain arte Ignacio Lakunzak bete duen kargua.

Mondragon Unibertsitatea orain bi urte sortu zen, gure inguruko hiru eskola bilduz: Eskola Politeknikoa Arrasaten, Irakasle Eskola Eskoriatzan eta ETEO Oñatin. Urte hauetan Ignacio Lakunza izan du errektore.

Orain, berriz, errektore berriak esku artean izango duen eginkizunik garrantzitsuena MU XXI mendearen hastapenetan gidatzea izango da.

Jabier Retegi oso lotuta dago Mondragon Unibertsitatearekin. Eskola Politeknikoan egin zituen Ingeniaritza Teknikoko ikasketak. Geroago eskolako irakasle izan zen eta baita zuzendari ere. Ikerlaneko lehendakaria ere izan zen. Baita LKSko zuzendaria ere. Eusko Jaurlaritzan ere kargu asko izan ditu: SPRIko zuzendaria, Hezkuntza sailburuordea eta Industria sailburua, besteak beste. Gaur egun MCCko Garapen Teknologiko eta Kalitateko zuzendaria da. Oraingoz kargu bi hauek uztartuko ditu.

Ignacio Lakunzak, berriz, Eskola Politeknikoko zuzendari moduan segituko du. Laster aldaketa gehiago etor liteke.

# Portugaldarrak orain arrasatear

Zaldispeko bi familia portugaldarrak Arrasateko erroldan sartu ditu udalak ia urte t'erdian ezezkoa ematen ibili eta gero. Aurtengo maiatzaren 5eko dataz agertzen dira erroldan. Halaxe adierazi zuen asteazkenean SOS Arrazakeriak taldeak prentsaurre baten bidez.

Ekintza honen zergatia da SOS Arrazakeriakek orain duen zalantzarik handiena. Izan ere, hiru eskaera egin dira orain arte eta udalak beti ukatu die bi familiei erroldan sartzeko aukera. Hori dela eta, SOS Arrazakeriak taldeak bi familia hauek jasan behar izan duten bazterkeria salatu du.

**EGUNAK ALDATU BEHARRA**

Bestalde, SOS Arrazakeriak-ek erroldan azaltzen den aurtengo data aldatu nahi du eta lehenengo eskaerakoa jarri, hau da, iazko otsailaren 9koa.

Izan ere, behin erroldan onartuta daudela, bi familia hauek, foru aldunditik laguntzak jasotzeko eskubide osoa daukate. Baina horretarako beharrezkoa da erroldan gutxieneko denbora bat egotea.

Izan ere, Emergentziazko Laguntzak jasotzeko, gutxienez sei hilabete igaro behar dira erroldan apuntatuta. Era berean, hilero-hilero diru laguntza jaso ahal izateko, gutxienez urtebete egon behar dira erroldan sartuta. Hori dela eta, garrantzitsua iruditzen zaie erroldan agertzen den data hau aldatzea.

Honetaz gain, SOS Arrazakeriak-en esanetan, eman beharreko hurrengo pausua etxebizitzak aurkitzea da. Talde honen ustez, udalak egin beharko luke lan hau. Izan ere, orain arte erroldan sartzea ukatzeak, bi familia hauen gain bazterkeria eragin duela salatu du aipatutako taldeak.

Zaldispeko bi familia hauek Arrasatetik joatekotan ziren, baina Alberto Encinasen esanetan, erabaki hori Arrasateko Udalak izandako jarreraren ondorioa izan da. Portugaldarren asmoa eta nahia betidanik Arrasaten biziztea izan da.

Jose Mari Loiti Mondragoeko alkateak oraingoz ez du adierazpenik egin nahi izan gertatu diren aldaketa hauen inguruan.

# 403 lanpostu berri Fagorren

Fagor Taldeak 403 lanpostu berri sortuko ditu aurten, horietako 325 Fagor Elektratresnetan. Baina 403 lanpostu horietatik 106 baino ez dira berriak izango, beste guztiak gurasoetatik seme-alabetara pasatakoak izango dira eta. Datuok asteartean Gizarte Kontseiluak emandako prentsaurrean jakin ziren, bai eta Fagor Taldeak bat egiten duela maiatzaren 21eko osoko lanuztearekin.

Izan ere, gaur egun 1.000 bat lagun ari dira behin behineko kontratuarekin Fagorren eta hori, Gizarte Kontseiluaren arabera "onartezina da, 7.000 langile baino gehiago ari diren enpresa batean". Hori dela eta, Joseba Ugaldek Lagun Aroko kide diren 20.500 bazkideen erdia aldi baterako kontratupean egotea salatu zuen. Hau guztia salatzeko baietza eman diote 35 orduko lan astea eskatzeko maiatzren 21ean egingo den lanuzterako deialdiari.

# Hilerria itxiko da

San Kristobaleko hilerria hilabetez itxiko da datorren astelehenetik aurrera. Izan ere, hango klaustroetan egiten ari diren lanen ondorioz, toxikoa izan daitekeen intsektizida bat erabili behar dute. Norbaitek han lorak baditu, komeni da astelehena baino lehen kentzea.

# Arrasateko gida

Arrasateko Udalak bere lehenengo merkataritza gida plazaratu du. Herriari buruzko informazio asko dakar. Etxe guztietara bidaliko da, doan.

Batez ere kanpotik datozen turisteri zuzendutako gida dela adierazi zuen alkateak gidaren aurkezpenean.

# Alkate ohiak



## Pedro Basterretxea

Atzera eginez bizirik dauden Arrasateko alkate izandakoen artean, Pedro Basterretxea aurkitu dugu urrutien. Gizon neurritsua, 1970 eta 1975a artean izan zuen agintea. Alkatetzaren azken hiru urteetan, gainera, diputatu izan zen Gipuzkoako Foru Aldundian, Plan Berezietarako batzordeburua hain zuzen ere. Franco hil zen urtean utzi zituen kargu biak.

Oro har, oroimen ona du alkatetzan egindako urte haietaz, batez ere lantalde ona eratu zelako bere inguruan. "Hainbat gauza egin genuen: institutua, OHOko eskola Ferixalekuan, anbulatorioa, kiroldegia egiteko lurrak erosi, ikastolari ahalik eta laguntza handiena eman, baina batez ere Urkuluko urtegia, hau diputaziotik, eta Arrasateko Plan Orokorra", dio burua besaulkian bermatuz.

Haintzat hartzen du bere atzetik etorri ziren alkateen lana. Gaur egungo Arrasate bizirik eta bor-bor ikusten du. Aterako den alkateari hauxe eskatuko lioke, denen alkatea izaten saia dadila, alegia.

# Zu alkate bazina?

**Ezagutzen duten gehienek ez dakite haren abizena. Rosi Katanga deitzen diote, garai batean bere familiak Maala errebalean izan zuen tabernari bezala. 48 urte ditu eta dagoeneko Arrasateko aurpegirik ezagunenetakoa da. Sasoi batean Inauterietako Play Back jaialdian ibili zen sartuta. Berak sortu zuen, gainera, nesken Mondra futbol taldea. Nafarroa Etorbideko Gaiberritze Zentroan egiten du lan, erizain gisa.**



## Rosi Otadui

**— Alkate bazina zein izango litzateke hartuko zenukeen lehen erabakia?**

— Aholkulari onak bilatuko nituzke, gai desberdinetan adituak diren pertsonak. Izan ere, uste dut alkatea hor egon behar den figura dela, baina ardurak banatzen jakin behar duela. Horregatik, jende ona izan beharko luke inguruan.

**— Nolako dohainak izan beharko lituzke alkate batek?**

— Hemen gertatzen da alkate gehienak alderdi politikoetan dabiltzala eta horregatik bakarrik, beste alderdietakoak aurka izaten dituztela, alderdien arteko jokoa horrelakoa delako. Horregatik esaten dut adimenduna izan behar dela eta entzuten jakin behar duela.

**— Zer gomendatuko zenioke hurrengo alkateari?**

— Herriaren arnasa bizi dezala. Alkateek beren alderdien politika egin dute askotan. Irten daitezela koskol horretatik eta jakin dezatela zer pentsatzen duten gazteek eta zaharrek, esate baterako.

**— Arrasatek inoiz ez du izan emakume bat alkate.**

— Nik dakidala, ez. Xabier Zubizarretaren garaian Ino Galparsoro izan zen alkateorde, baina emakume alkaterik ez dugu izan. Oraindik erabat askatu barik gaudela esango nuke. Orain artean emakumeak alkandora prestatu izan dio alkateari, besterik ez.

**— Zeintzuk dira Arrasatek dituen premiarik gorrienak?**

— Gazteak eta zaharrak erabat utzita daude. Baita auzoak ere. Langabezia udalaren ardura izan beharko litzateke. Ez lirateke utzi behako eskaleak kaleetan. Astelehenetik ostirala bitartean, bestalde, kaleak zaindu beharko lirateke gauetan. Zerbitzu publiko guztiak udalarenak izan beharko lirateke. Aste Santuko ospakizunak ere berreskuratu egin beharko lirateke.

**— Zer espero duzu hauteskunde hauetatik?**

— Beti bezala, onena.


EKOPHONE @

Telefono mugikorrak eta osagaiak

**Ondo pasatu San Isidro jaiak!**

Eroski merkataritza gunea, 2. lokala
Tel.: 943 79 10 02




Astelehenetik asteazkenera enkarguz
Ostegunetik igandera zabalik

MENU ESKAINTZARIK ZABALENA AUKERAN

*Arraga auzoa*
*Tel.: 945 44 53 85*
*ARAMAIO*

IRALA
BITXITEGIA

San Isidro
jai zoriontsuak izan!

Eroski Merkataritza gunea
Tel.: 943 79 36 47

## Printzak

❖ **Paco Garcia** PSE-EE alderdiko zerrendaburuak dohain berezia du telebistaren aurrean hitz egiteko. Esaten bazaio hogei segundu dituela erantzuteko, hortxe jarriko dizu erantzuna, ganoraz esanda eta denbora horren barruan.

❖ Partidu Popularrak arrasatear bat aurkeztu du bere zerrendan. Herriko bakarra da, gainerako guztiak kanpotarrak dira eta. **Jose Ramos Prieto** eraikitzailea da, 60 urte ditu eta bigarren doa zerrendan, **Antonio Palacios**en atzean.

❖ EAJk eta EAk bitariko batzorde bat sortu zuten Arrasaten, zerrenda eta programa lantzeko. Jeltzaleen partetik **Jose Mari Loiti, Agustin Ugarte** eta **Julian Garai** aritu ziren. EAkoak, berriz, **Luis Etxebarriarteun, Juan Antonio Barriocanal** eta **Jose Mari Urizar** ***Ametzu.***

❖ PSE-EEk eta EHk Arrasateko harmarria erabili zuten beren hautagaien aurkezpen ekitaldietan. Sozialistena morez marraztua eta abertzaleena koloretan. Biek arrasatetartasuna azpimarratu nahi dute, antza.

## Quisiera ser alcalde...



Antonio Palacios

Erabat lanpeturik bizi da egunotan Antonio Palacios, Arabako Alderdi Popularra antolatzen. Apenas du astirik Arrasatera etortzeko. Bere saltsan dabil 31 urteko gasteiztar hau. Atzean geratu zaizkio Sarrikon egin zituen enpresa ikasketak. Baita Sabecon eta aldi baterako enpresa batean egin zituen urteak ere.

Oraingoan itsaropentsu dago bere atzetik mondragoetar bat joango delako eta zinegotzi ateraz gero, alderdia itzaletik atera dezakeelako.

Nekazaritza du gustuko eta lorak eta herri txikiak. Baita larunbatetako lagunarteko afariak ere —"gula da nire biziorik handiena"—. Leialtasuna balioesten du gehien gizakiengan eta baikortzat du bere burua, botila erdi beteta ikusten duten horietakoa.

Stephen King-en eleberriak gustatzen zaizkio eta zineari dagokionez, *El Abuelo* filma gomendatzen digu.

Etorkizun handiko herria ikusten du Arrasate. Mondragoetarrak, aldiz, beldurrarenpean bizi omen gara, "bestela ez nintzateke zerrendaburu izango bigarren aldiz".

✗ Bataioak, jaunartzeak, enpresa bazkariak eta lagunartekoak
✗ Karta eta menu berezien zerbitzua



DENBORALDIKO PLATERAK, GIRO ONENEAN

BASTER-ALDE
JATETXEA

Galartza auzoa • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 24 58



# SJB Batzorde Eragile

**"Parrokia ez zen berriztuko Elgoibartik abade zoro hau etorri ez balitzaigu", esaten du San Joan Bataiatzailea (SJB) Zahartzerritzeko Batzorde Eragileko kide batek. Abade zoroa Jose Maria Astigarraga zen, Arrasateko parroko elgoibartarra, gurera 1984an egin zuena Errenteriatik. SJB parrokiaren egoera ikusi zuenean, hautsi egin zitzaion bihotza. "Lotsatuta nengoen neure ardurapeko erakunde bat horrelako egoeran egoteaz. Itsusituta zegoen, iluna zen, tristea..., ez zen bat ere egokia elizako ospakizunak alaitasunez egiteko", aitortzen du parrokoak. Zerbait egin beharra zegoen.**

"Arrasatek edozer barkatuko dizu, alperra izatea izan ezik. Eta edozein proiektu dela, herriak onartzen badizu, beti lagunduko dizu aurrera ateratzen", esan zion herritar batek etorri berritan. Denborak aurrera egin ahala, egia dela konturatu zen. Adibidez, iritsi eta urte pare batera aldare nagusia itxuratu zuen, 09:00etako mezatara joaten ziren emakumeen laguntzarekin.

Baina hori ez zen nahikoa. Arrasateko eraikuntza esanguratsuenak —Monterron jauregia, Garibai etxea, udaletxea— berriztuta zeuden. Parrokia, berriz, egoera negargarrian.

Ate joka hasi zen, parrokia zaharberritzeko laguntza eske. Zer eta nola egin dezakegu parrokia txukuntzeko? Enrique Forondaren atean ere jo zuen. Hau ibilia zen 1981ean Arrasaten egin ziren Kilometroen antolakuntzan. Orduko esperientzia gogoan, herritarrez osaturiko talde bat osatzeko gomendatu zion. Eta, ahal bazuen, Jose Antonio Altuna *Txatillo*, alkate ohia, buru jartzeko.

Zerrenda zirriborro bat osatu zuten eta jendeari banan-banan deitzen hasi ziren. Jose Antonio Altunak baietz, baldin eta Alfonso Gorroñogoitia ere taldean sartzen bazen. Alfonsok ere, erretiratu berri kooperatibetan, baiezkoa eman zuen. Aldaketa gutxi batzuekin, osatu egin zen azkenean taldea.

Denetariko jendea zuten. Koordinazioan zartada handiko gizon bat, harreman askotakoa eta herrian itzala zuena. Eragile nagusi, kooperatibetako sortzaileetako bat. Marketing kontuetarako, espezialista bat. Aditu bat historian. Goi mailako idazkaria eta diru kontuetan, teknikoetan eta artistikoetan trebea zen jendea. Lehendakaritzan, parrokia zaharberritzeko asmo zoroa izan zuen abadea. Denak herritarrak eta herriaren amorez lan egiteko prest.

"Behin taldea osatu zenean, lasai geratu nintzen. Banekien zaharberritzea egin egingo zela", dio Jose Mari Astigarragak irribarre zabalarekin. "Taldeak erabateko autonomia izan du. Lan egiteko modu demokratikoa izan du eta behin baino gehiagotan tokatu zait nire gustuko ez ziren gauzak onartu beharra. Onartu egin dute nire lehendakaritza, baina saiatu dira parrokoa pastoral lanetarako liberatzen. Beraz, ez naiz eragile izan".



**Bederatzi urtean zehar, astero-astero bil**

## LANEAN

1990eko uztailaren 24an taldeak lehen bilera egin zuen. Berehala ezarri zioten izena

### SJB BATZORDE ERAGILEA

**Hasieran 14 lagunek osatu zuten SJB Batzorde Eragilea. Azken aldi honetan, ordea, zortzik hartu izan dute parte zuzena.**



**Jose Maria Astigarraga (60 urte) Lehendakaria**



**Jose Antonio Altuna (62 urte) Kudeatzailea**



**Arantxa Olabe (50 urte) Idazkaria**



**Jose Andres Arregi (54 urte) Diruzaina**



**Joaquin Etxebarria (56 urte) Arte aholkularia**



**Enrique Foronda (52 urte) Marketinga**



**Alfonso Gorroñogoi (74 urte) Eragilea**

# ren lan historikoa



a SJB Batzorde Eragileko kideak sakristauaren etxean.



## LANEN KRONOLOGIA

Bost urte iraun dute SJB parrokia zaharberritzeko lanek. Teilatuan hasi ziren eta Iturriotz kaleko aurrealdean amaitu.

| LANAK | HASI | AMAITU |
|---|---|---|
| • Teilatua | 1994.01.19 | 1994.10.24 |
| • Erdiko Kaleko aurrealdea | 1995.02.01 | 1995.06.15 |
| • Plazako aurrealdea, sakristia | 1995.08.22 | 1996.03. 27 |
| • Barrualdea | 1997.04.01 | 1998.06.10 |
| • Kanpandorrea | 1997.12.05 | 1998.06.10 |
| • Iturriotz kaleko aurrealdea | 1998.07.25 | 1998.12.30 |

Teilatuko lanak proiektatu eta zuzendu Migel Mari Lasa arkitektuak egin zuen. Gainerakoak Jabier Ortegak zuzendu zituen.

batzordeari: San Joan Bataiatzailea Eliza Zaharberritzeko Batzorde Eragilea. Eta laburrago: SJB Batzorde Eragilea.

Lehen bilera hartatik, batzordea 321 aldiz batzartu da, astelehenero, arratsaldeko 19:00etan, parrokia ondoan dagoen sakristauaren etxean. Guztira 2.800 bilera ordu egin dituzte bederatzi urte hauetan. "Bilera ordu horiek ordaindu beharko balira, ez legoke dirurik hori ordaintzeko", dio parrokoak, "zuk pentsa *Txatillo*ren edo Alfonsoren lan orduek, bi horienak bakarrik aipatzearren, zer prezio duten merkatuan eta hortik atera kontuak". Baina denek musutruke egin dute lan. Bileren ostean, hori bai, beti joan izan dira txikito bat hartzera Arrasate tabernara. Athleticen eta Realaren kontuak atera, eta bilerako tentsio uneak lasaitze aldera.

## HELBURUAK

Batzordeak bi helburu nagusi ezarri zituen: elizari jatorrizko itxura itzultzea (eliza gotikoa da, gotikoaren ezaugarri asko eta asko izkutaturik zituena), eta zaharberritzea erabateakoa egitea, teilatutik hasi eta sakristiaraino.



Iñaki Mujika (62 urte) T. aholkularia



Jose Luis Osinaga (54 urte) Harremanak



Josemari Velez de Mendizabal (49 urte) H. aholkularia



Joxe Zulueta (77 urte) Parrokia



Dorita Murgia (52 urte) Kontu eramailea



Migel Mari Lasa (47 urte) Arkitektua



Javier Ortega (67 urte) Arkitektua

Eliza erabat hondatuta zegoen. "Oraintxe konturatzen gara zenbateraino zegoen gaizki", dio Jose Antonio Altunak, "zutabe eta horma asko zulatuta zeuden, janda, garai batean edo bestean halako irudia edo bestelako sagrarioa ipini zirelako. Eliza behera etor zitekeen eta sarraski bat eragin".

Batzorde eragilearen lana ez da arrosa bide izan. Teilatua konpontzeko orduan Kapirixo elkartearen kritikak eta Tito Perkaz udal arkitektuaren eragozpenak jaso zituen, ez errespetatzearren jatorrizko egurrak eta. "Teilatua erabat hondatuta zegoen", dio Alfonso Gorroñogoitiak, "hura berreskuratu nahi izatea astakeria hutsa zen; Kapirixok nahi zuena egin balitz, parrokia inoiz ez zen zaharberrituko. Onena onaren etsai bihurtu zitzaigun. Beraz, material berriak erabili genituen teilatua konpontzeko".

Maritxu Kajoi ere liskarbide bilakatu zen. Batzordeak Erdiko Kaleko atetik aldendu nahi zuen. Maritxu Kajoi Batzordeak, ostera, inolaz ere ez. Azkenean, alde biek erakutsi zuten elkarrizketak eta diplomaziak baliozkoak direla oso, horrelako egoeretan.

Eliza barrua ere arazoz betea zegoen (erretaulak, beirategiak, zutabeak, zorua, koruak, etabar, etabar), batzuk konponterrazak eta besteak zailxeagoak. Batzorde Eragileak zuhur jokatu du kasu hauetan. Alde batetik, ez du inoiz atzera ezinezko erabakirik hartu nahi izan (Urangaren freskoak kenduz gero, adibidez, hori ez dago berreskuratzerik, atzera egiterik).

Bestetik, goi mailako adituen iritzia jaso izan du. Horietako bat Jose Angel Barrio Loza Deustuko Unibertsitateko Historia eta Arte katedraduna izan da. Guztira hiru txosten egin ditu.

**Parrokia berriztearen kostua**
590 milioi pta




Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundira joan direnean, argudioak ondo landuta eraman dituzte beti. Hala ere, diputazioaren uzkurtasunak zazpi hilabeteko atzerapena eragin zuen eliza barruko lanetan. Zorionez, hori ere gainditu zen eta 1997ko apirilaren 1ean barruko lanak hasi egin ziren.

## FINANTZIAZIOA

Lanen kostoa handia izan da: 590 milioi pta ingurukoa, oraindik ere iristen ari baitira azken fakturak.

Hiru diru iturri egon dira: herria, Arrasateko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Arrasateko herriak zuzenean diru horren %42 ipini du. Herri erakundeek, berriz, gainerako %58a. "Baina batzen badituzu herritarrek jarri dutena, Arrasateko Udalak ipinitakoa eta diputazioak ezarritakotik arrasatearrei dagokiena, aterako zaizu lanen kostuen %75, hiru laurdenak, Arrasatetik irten direla, modu batean edo bestean", dio Jose Antonio Altunak.

Batzordekide guztiek azpimarratzen dute, nolanahi ere, ez dagoela Gipuzkoan beste herririk bere eliza konpontzeko proportzioan hainbeste diru ipini duenik. Ezta diru kontuak halako zehaztasunez eta seriotasunez eraman duenik ere.

## AUSARDIA

Joan den urteko ekainean parrokia ireki zenean berriro, jendea zur eta lur geratu zen harrizko zutabeen ondoan burdinazko hodiak zeudela argiei eusteko edo burdinazko hodiek sostengatzen zutela korua.

Eztabaida frankoren ostean hartu dira erabaki horiek: "ez dugu iragana imitatu nahi izan, oraina desitxuratuz", esaten dute. "Horregatik, zenbait kasutan material berriak aukeratu ditugu".

Ausardiaz jokatu dute hor eta baita beste hainbat kontutan ere. Argiztapena, esate baterako, zoragarri geratu da. Baita megafonia ere. Lehen elizak zazpi koru zituen; orain bakarra. Kanpantorrea ere ikusgarri polita geratu da.

> "Jainkoaren graziaz eta Arrasatearron ahaleginari esker, eliza hau XIV mendean eraiki eta XXaren amaieran berriztatu zen"

## ELIZA GOTIKOA

Zaharberritze lanei esker, arrasatearrok Erdi Aroko bitxi gotiko bat berreskuratu dugu. SJB elizak eite eta nortasun berezia hartu du orain, lehen erabat desitxuratua zuena.

"Bere txikian, Arrasateko parrokia Gipuzkoako ondarerik bitxienetakoa da, erdiguneari nortasun itzela ematen diona", azpimarratzen du Jose Mari Astigarragak.

Horretan mesede egin dio Iturriotz kaleko elizpea kentzeak, agerian jarri baititu elizak izkutuan zituen hainbat eta hainbat ezaugarri.

Iturriotz kaleak ere askoz argitasun handiagoa hartzen du horrela. Edonola ere, oraindik erabakitzeke dago zer egingo ote den elizpearekin. SJB Batzorde Eragilea ez ipintzearen alde dago.

Aste honetan ere bilera egin du SJB Batzorde Eragileak. Bost egun baino ez dira falta elizaren inaugurazioa egiteko. Pozik daude denak egindako lanarekin. Hala ere, hemen ez dago txantxarik. Betiko moduan, Alfonsok zuzentzen du bilera, amoltsu baina zorrotz. Bukatu orduko, keak betetzen du gela.

Datorren astean eta hurrengoan ere berdin izango da, ekainaren 30ean bederatzi urteko lana bukatutzat ematen duten arte. Orduan txikitoak jaso eta topa egingo dute Arrasate tabernan. Topa! ■

**Joxe Aranzabal**

# San Isidro zoriontsuak arrasatear guztiei eta bereziki Musakolako auzokideei

Aldibi

NISSAN
Aldibi autoak, S.A.

Izar autoak, S.L.

VOLVO
Auto Suecia

GALLOPER
Almovil, S.L.

HYUNDAI
Musakola autoak, S.L.

MITSUBISHI MOTORS
Aldikar autoak, S.L.

ALDIBI AUTOAK, S.A. • Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 71 20 02 / Faxa: 943 79 65 65

# Musakolako Jaiak


HiPER EROSKi
KAFETEGiA
JATETXEA
Eguneroko menua
Musakola Pol. z/g • Tel.: 943 79 55 69

TXANPI
BODEGA
Gipuzkoa Etorbidea, 18
Tel.: 943 79 20 22

IOSU
KAFETEGIA
Elkano kalea, 25
Tel.: 943 77 03 66

BEBERLY
Gipuzkoa Etorbidea, 9
Tel.: 943 79 16 99

arreglos
• Arropa
• Larrua eta dama
• Puntua
• Errezelgintza
• Soinekogintza
• Bordatuak
• Goi mailako joskintza
• Garbitegia
Eroski merkataritza gunea
Tel.: 943 79 10 43

Rafa
• Giltzen kopiak
• Oinetako konponketa
• Artazi, laban eta abarren zorrozketa eta salmenta
• Larruzko artikuluak
• Pantografo bidezko grabaketak
• Serrailgintza (irekitze, salmenta eta instalazioak)
Eroski merkataritza gunea, 1
Tel.: 943 79 76 03

NEKER c.b.
Bainuak • Berogintza • Gasa
Elkano, 40
Tel./Faxa: 943 79 89 67
Tel. mugikorra: 629 49 00 24

AL ANDALUS
KULTURA ELKARTEA
Zigorrola, 1
Tel.: 943 77 03 28 (Elkartea)
943 79 91 82 (Taberna)

PEUGEOT MOTOCYCLES
GILERA
MOTOR SALMENTA ETA KONPONKETA
Leniz Motor
• Basoak
• Loretegia
• Nekazaritzarako tresnak
STIHL
Gipuzkoa etorb., 9 • Tel.: 943 79 11 78

Iturgintza EGIA
ERAKUSKETA:
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
ARRASATE
Tel.: 943 77 01 85

Zatoz 14,5 eta 16an San Isidro jai gozatzen

JUBILATUEN
ELKARTEA
Gipuzkoa Etorbidea,45
Tel.: 943 77 12 66

INSTITUTO
OPTICO
Kalitatea saltzen dugu
Erdiko kale, 22 - Tel.: 943 79 71 68
Hiper EROSKI - Tel.: 943 79 78 26

ILUNA
taberna
Elkano, 23
Tfnoa.943 79 23 78

JEY
JULIWER
Elkano kalea, 36
Tel.: 943 79 22 11

KATAIDE
JATETXEA
Plater konbinatuak eta otartekoak
Kataide industrialdea, 10 bis
Tel.: 943 79 60 10 / 943 77 10 80

Lasagabaster
HARATEGIA
Gipuzkoa etorbidea, 33
Tel.: 943 79 16 86

HOSTAL
MUSAKOLA
Taberna - Jatetxea
Gipuzkoa Etorbidea z/g
Tel.: 943 79 20 50

PRENTSA
TXOKOA
Eroski merkatal gunea

UDALAITZ TAILERRAK
Musakola, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 18 80
943 79 21 25
943 79 24 11

ZIORLA
TABERNA
Antso Abarka, 5
Tel.: 943 79 20 46

# gure partetik, jai zoriontsuak


Basilio
Bakailaoan espezializatua
Gipuzkoa Etorbidea,37
Tel.: 79 81 53

ARRASATE
TOURLINE EXPRESS
79 69 99

KONTXO,
ogia, pastelak eta jatekoak
Bolibar doktorea • Tel.: 943 77 00 91

KORTABERRI
Harategia Urdaitegia
Antso Abarka, 3
Tel.: 943 79 20 28

Nabia
ile apaindegia
Emakumeentzako ile apaindegia
Antso Abarka, 6 • Tel.: 943 79 22 59

IMANOL
• Iturgintza • Berogintza •
• Gasa • Bainuak •
Kale Txiki, 9 behea
Tel.: 943 79 05 95

AGRIZENTROA
OTXOA, S.L.
BANAKETAK
Musakola Industrialdea 2
Tel.: 943 79 17 79

ARRASATE Electricidad
INSTALAKUNTZA ETA MUNTATZE ELEKTRIKOAK
• Argiztatze profesionala
• Diseinuzko argiztatzea
24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77
Gipuzkoa etorb. 37•Tel./Fax: 943 79 65 93




PUBLICOP
Objektu bidezko publizitatea
• Enpresa opariak
• Publizitate promozioak
• Diseinu grafikoa
• Moldiztegia
• Errotulazioa
Eroski merkataritza gunea
Tel./Faxa: 943 77 06 09
email: publicop@jet.es

J. Elorza
Harategia Urdaitegia
EUSKAL OKELA
Joan Bengoa, 1
Tel.: 943 79 75 80

ELECTRICIDAD MUSAKOLA
Antso Abarka, 5 etxabea
ARRASATE
Tel.: 943 79 39 22
Tel. mugikorra: 607 22 54 28

HARREMAN
Erantzunkizunez kontsumitzeko erarik egokiena
Hiper-Eroski Merkataritza gunea

AGR Dekorazioa
APAINKETA
• Era guztietako zoluak
• Lixaketa eta barnizaketa
• Ateak. Neurriko armairuak, leihoak...
Erakusketak:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

MENETA TABERNA
ZURE ETXEAN BEZALA
Gipuzkoa Etorbidea, 48
Tfnoa. 943 79 65 31

J. AZPILIKUETA
HARATEGIA • URDAITEGIA
Maisu Aranbarri, 2
Tel.: 943 79 29 14

BEGOÑA
Lurrindegia • Drogeria
Gipuzkoa etorbidea, 33
Tel.: 943 79 03 73

Zatoz!
TXINATO
KAFETEGIA
Elkano kalea, 9
Tel.: 943 79 20 95

Estrella Taberna
Elkano, 3
Tel.: 943 79 20 82

Zigarrola
Joko aretoa
Bolibar doktorea, 1
Tel.: 943 79 60 72

Guridi
JANARIDENDA
30 urtetik gora kalitatea eskaintzen
Elkano, 21
Tel.: 943 79 29 28

# MAILA HANDIA KARTA JOKOAN

SUDCek antolatutako XXI Elkarte Arteko Mus Txapelketako argazkia dugu hauxe. Txalaparta elkartea izan zen garaile lehenengo aldiz. Irabazleen esanetan, zirrara handia sentitu zuten kostata irabazi eta gero. Zorionak!





# MUNDUA EZAGUTZEN

Donibanetik Lizarrara eta handik Arrasatera ibili ziren ostegunean 57 pertsonako lagun talde hau. ARKOn gora eta behera, adi-adi ibili ziren. Lizarrako institutuarekin orain 10 urte trukean hasitako ikasleak dira.



# MAITASUNA AIREAN

Edurne eta Javi urriaren 17an ezkondu ziren. Dagoeneko itzuli dira eztei bidaiatik, Costa Ricatik, hain zuzen ere. Argazki hau da oraindik ere elkar maite duten sinalerik agerikoena. Pozik bizi, bikote!

Foto imagen Zapping

# ONGI ETORRI JOSERRA!

Jose Ramon Etxebarria musakolarra orain 20 bat urte joan zen Venezuelara eta joan den igandetik, Arrasaten bere jaioterrian da berriro. Aspaldiko lagunak agurtzen eta hain aldatuta aurkitu duen Arrasate ezagutzen ari da orain.






# Iparraldeko lehen Euskal espedizioa Gasherbrum II

**Diapositiba emanaldia:**

Maiatzaren 19an, asteazkena

19:30ean

Amaia Antzokian

**BESAIDE**
MENDIZALE ELKARTEA

# Ametsak egia direnean

ARRASATE
KIROLAK

Kontzeziño, 8
Tel.: 943 79 46 12
ARRASATE



# zaldibarko **futbitoa**




**3. ALDIKO TALDEAK**

**A taldea**
Txantxiku Kirolak
You Know
Lontxo Taberna
Sokoakoak

**B taldea**
Aldibi
Pepelus
Orlando Piratas
Komando Alpargat

**D taldea**
AC Surkos
Naranja Mecanica
Dribling
KKJauri

**E taldea**
EPEH
Branka Taberna
Potroak
AT Celaya

## Laburrak

**■ AZKENENGOAN KALE**
Bigarren aldiko azkenengo jardunaldian, bi taldek kale egin zuten. Ez zuten aukerarik hirugarren aldira pasatzeko eta jai hartzea erabaki zuten. On egin Koka Juniors eta Insert Coin taldeei!

**■ EZUSTEKOA**
Azkenengo sailkapena esku artean dugula, gure susmoak bete egin dira. Sokoakoak eman digu ezuztekoa. Joan den astean Saukelu Scream taldearen sailkatzea Sokoakoakek jokatu behar zuen partidak baldintzatua zegoela esan genizuen. Azkenean Saukeluren ordez Sokoakoak sailkatu da! Ezustekoa Irati STSk iaz azpitxapeldunak eman digu, agur esan dio eta, Futbito Txapelketari.

**■ HIRUGARREN ALDIA**
Launa futbito talde arituko dira hemendik aurrera A, B, D eta E taldetan).

Taldeak nahiko orekatuak gelditu direla esan dezakegu. Beraz, lehia izango da final laurdenetarako. Multzo bakoitzetik lehenengo biek lortuko dute txartela.

**■ TALDEAK BANAKA**
A taldeanTxantxiku Kirolak dugu faborito. bigarren sailkapena nork lortuko duen, ordea, ez dago hain argi. Izan ere, aurreko aldian Lontxo tabernak beherakada nabarmena izan du eta. Bestalde, Sokoakoak justu-justu sailkatu da.

B taldean Aldibi eta Orlando Piratas arituko dira lehen tokiagatik lehiatzen, baina kontuz Pepelusekin.

D taldean, berriz, Naranja Mecanica nagusi daitekeela dirudi eta E taldean, azkenik, talde orekatuena izanik, ezin esan nor sailkatuko den.





**Dietetika eta Nutrizioa**
*Lorea Aramburu Dk.*

- *Medikuntzan eta Kirurgian Lizentziaduna.*
- *Bordeleko Unibertsitateak Dietetikan eta Nutrizioan Diplomatua.*
- *Bordeleko Unibertsiateak Kirol Medikuntzan Diplomatua.*

**Tratatzen diren osasun arazoak:**

- Kolesterola
- Loditasuna
- Diabetesa
- Azido urikoa
- Arteria hipertentsioa
- e. a...

Ordutegia: Goizez eta arratsaldez

*INSTITUTO MÉDICO PALACIO MENDIA*
*Erdiko kale, 22 - 1. • ARRASATE • Tel: 943 79 72 16*

## Sailkapenak




| A taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| Txantxiku Kirolak | 7 | 6 | 1 | 0 | 48 | 16 | **13** |
| Branka Taberna | 7 | 4 | 2 | 0 | 35 | 25 | **11** |
| Driblig | 7 | 4 | 0 | 3 | 30 | 29 | **8** |
| Komando Alpargat | 7 | 2 | 2 | 3 | 30 | 36 | **6** |
| Irati STS | 7 | 2 | 2 | 3 | 26 | 24 | **6** |
| Jotakabau | 7 | 1 | 4 | 2 | 19 | 24 | **6** |
| Aita Menni 2010 | 7 | 1 | 2 | 4 | 25 | 41 | **4** |
| Leya | 7 | 1 | 0 | 6 | 24 | 43 | **2** |

| B taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| Aldibi | 7 | 6 | 1 | 0 | 39 | 18 | **13** |
| You Know | 7 | 5 | 0 | 2 | 38 | 27 | **10** |
| Potroak | 7 | 4 | 2 | 1 | 45 | 28 | **10** |
| KKJauri | 7 | 4 | 0 | 3 | 34 | 40 | **8** |
| Garaje Oskar | 7 | 3 | 0 | 4 | 25 | 32 | **6** |
| DKB | 7 | 0 | 2 | 4 | 23 | 34 | **4** |
| Koka Juniors | 7 | 2 | 0 | 5 | 17 | 33 | **4** |
| Fragel Gol | 7 | 0 | 1 | 6 | 10 | 20 | **1** |

| D taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| AC Surkos | 7 | 6 | 1 | 0 | 60 | 23 | **13** |
| Pepelus | 7 | 4 | 1 | 2 | 28 | 28 | **9** |
| Lontxo Taberna | 7 | 4 | 1 | 2 | 44 | 29 | **9** |
| AT Celaya | 7 | 4 | 0 | 3 | 39 | 38 | **8** |
| Xhasss Ugarte | 7 | 3 | 0 | 4 | 37 | 38 | **6** |
| Diego Antonio | 7 | 2 | 1 | 4 | 31 | 45 | **5** |
| Kamasutra | 7 | 2 | 0 | 5 | 28 | 42 | **4** |
| Aurrera Bolie | 7 | 0 | 2 | 5 | 23 | 42 | **2** |

| E taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| EPEH | 7 | 6 | 0 | 1 | 35 | 21 | **12** |
| Naranja Mecanica | 7 | 6 | 0 | 1 | 46 | 23 | **12** |
| Orlando Piratas | 7 | 5 | 0 | 2 | 39 | 22 | **10** |
| Sokoakoak | 7 | 3 | 1 | 3 | 18 | 19 | **7** |
| Saukelu Scream | 7 | 3 | 1 | 3 | 13 | 22 | **7** |
| Totem | 7 | 2 | 3 | 4 | 19 | 30 | **5** |
| Insert Coin | 7 | 1 | 1 | 5 | 12 | 30 | **3** |
| Ke Oxtias | 7 | 0 | 0 | 7 | 4 | 17 | **0** |

## Emaitzak

**A taldea**

Txantxiku Kirolak 3 - Irati STS 2
Dribling 8 - Jotakabau 5
Aita Menni 2010 8 - Leya 4
Kom. Alpargat 4 - Branka Tab. 6

**B taldea**

You Know 6 - Potroak 5
KKJauri 5 - Garaje Oscar 4
DKB 1 - Koka Juniors 0
Fraguel Gol 0 - Aldibi 1

**D taldea**

AC Surkos 6 - Lontxo Taberna 3
Xhasss Ugarte 7 - Aurrera Bolie 3
Diego Antonio 4 - Pepelus 5
AT Celaya 8 - Kamasutra 4

**E taldea**

Orlando Pir. 3 - Naranja Mec. 6
EPEH 3 - Totem 1
Insert Coin - Sokoakoa 1
Ke Oxtias 0 - Saukelu 1

**ARRASATE KIROLAK**
Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

## IV Nesken Futbito Txapelketa

**3. jardunaldia**
**San Viatorren**
Txanpi 1 2 - Ieup!! 1
Gora Gu 4 - @z.kom 2
Izen Bakuak 6 - Skarlets 1

**Oraindik jokatzeko:**
Txanpi 2 - Nuze
Pilpil Efektua - P. Forever

**Lehen jardunaldiko partida atzeratua:**
Txanpi bat 3 - Txanpi bi 5

**Maiatzak 15, larunbata**
**San Viator Txikin:**
16:00 Izen Bakuak - P. Forever
17:00 Nuze - Gora Gu
18:00 Pilpil Efektua -@ z.kom

**Ferixalekuan:**
16:00 Txanpi 1 - Skarlets
17:00 Txanpi 2 - Ieup!!

**Sailkapen orokorra**

| | |
|---|---|
| 1.- Izen Bakuak | 6 |
| 2.- Txanpi 1 | 4 |
| 3.- Porrusalda Forever | 4 |
| 4.- Txanpi 2 | 4 |
| 5.- Gora Gu | 2 |
| 6.- Ieup!! | 2 |
| 7.- Pilpil Efektua | 2 |
| 8.- Skarlets | 1 |
| 9.- Nuze | 1 |
| 10.- @z.kom | 0 |

## Elkarrizketa

### Diego Gartzia

*(Kamasutra)*



**— Zenbatgarren txapelketa da?**

— Orain dela 4 urte eman nuen izena lehen aldiz txapelketan. Esperientzia ona, polita, jendea ezagutzeko aukera eman didalako. Gainera, kirola egiteko aitzakia ona da.

**— Nola doa denboraldia?**

— Gaizki, iaz ondo aritu ginen, baina aurten ozta-ozta sailkatu gara bigarren aldira eta garaipen bakarra lortu dugu. Ez dugu segitzeko aukerarik.

**— Non nahiago: Zaldibarren ala Iturripen?**

— Zaldiarren; Iturripen baino zabalagoa da eta jokatzeko, beraz, leku gehiago dago. Pareta ez zait abantaila dela iruditzen eta oso gutxitan erabiltzen dut. Pareta arriskutsua da.

**— Astean zehar entrenatzen duzue?**

— Ez; ez dugu entrenatzeko aukerarik, astegunetan ez baitugu Kamasutrako lagunak elkar ikusten.

## Hurrengo partidak

**3 aldia**
**1. jardunaldia**

**Maiaitzak 16, larunbata**

**Zaldibar**
09:50 Txantxiku Kirolak - Sokoakoak
11:00 Aldibi - Komando Alpargat
12:00 AC Surkos - KKJauri
13:00 You Know - Lontxo Taberna

**Maiatzak 17, igandea**

**Zaldibar**

09:50 Branka Taberna - Potroak
11:00 Pepelus - Orlando Piratas
12:00 Naranja Mecanica - Dribling
13:00 EPEH - AT Celaya

*Laugarren Otala-Zelai herri krosean*

## SERGIO BLAZQUEZ

### *"100 m.ko lasterketan parte hartzea gustatuko litzaidake"*

**— Joan den asteburuan Otala-Zelai herri krosean parate hartu zenuen, alebinetan. Laugarren gelditu zinen. Espero zenuen?**

— Ez nuen espero horren aurrean gelditzea. Baina pozik nago lortutakoarekin.

**— Luze egin zitzaizkizun 800 m.ak?**

— Bai, piska bat, bai.

**— Datorren urtean ere joango zara?**

— Bai, uste dut baiez, baina asko entrenatu behar da.

**— Eta Arrasateko krosean parte hartuko duzu?**

— Bai, agian bai, baina ikusiko dugu.

**— Gustatzen zaizu atxintxika egitea?**

— Bai, asko gustatzen zait.



**— Atletismo taldean sartzea gustatuko litzaizuke?**

— Bai eta 100 m.ko lasterketan parte hartzea ere bai. Esprintak egitea atsegin dut.

**— Korrika egiteaz gain, zer kirol gehiago egiten duzu?**

— Korrikan baino ez, horixe gustatzen zait. Hiru edo lau egunean entrenatzen dut astero.

**— Nor da Arrasaten gustuko duzun korrikalaria?**

— Remi Diosdado.

## FUTBOLA
### Azkenean irabazi

3 eta 0 irabazi zuten igandean preferente mailako Mondra taldekoek Hondarribiaren aurka. Aukera ugari izan zituzten eta hirutan lortu zuten Barbarin atezainaren atera iristea. Lehen 45 minutuetan izan zen gol aukerarik, baina hiru golak bigarren zatian sartu ziren. Ekain, Gorka eta Muruamendiaraz izan ziren goleatzaileak. Muruamendiaraz igandean aritu zen lehen aldiz preferentean. Zaleei eskaini zieten garaipena, aspaldi ez baitzuen horrelakorik lortzen Mondrak. Oraindik sailkapeneko azken tokian dirau, beste taldeek egiten dutenaren zain eta hurrengo denboraldiari begira gerta daitekeenaren beldur. Aste honetan ere Atxabalpen arituko dira, oraingoan Intxaurrondoren aurka. Ea bada, aste honetan ere garaipena lortzeko gai diren.

Ohorezko liga jokatzen ari diren gazte mailako mondragoetarrak ere etxean aritu ziren. Beasaingo taldea izan zuten aurrez aurre eta 4 eta 3ko garaipena eskuratu zuten. Etxekoak aurretik zihoazen sailkapenean eta horrela segituko dute. Aste honetan Hondarribiaren aurka neurtuko dira, berriz ere Atxabalpen.

## ATLETISMOA
### Brontzea 150 m.etan

Infantil mailako Gipuzkoako txapelketa jokatu zen larunbatean Anoetan eta Jurdana Aiala mondragoetarrak brontzea eskuratu zuen 150 m.ko lasterketan. Parte hartze libreko probak ere jokatu ziren, hurrengo txapelketetarako txartela lortzeko. Horietan aritu zen Unai Sarabia. 100 m.ko lasterketan 11 segundu eta 7 ehuneneko denbora egin zuen, ia-ia Arrasateko errekorra gainditu. Izan eren 1992an Josean Gayk 10"97 egin zuenetik, Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko inork ez du lortu denbora hori gutxitzea. Larunbatean parte hartze libreko proba gehiagotan arituko dira Arrasate Kirolak Atletiko Taldekoak Anoetan.

## ESKUBALOIA
### Garaipenik gabe

Joan den asteburuan Elgoibarren aurka aritu behar izan ziren haur eta gazte mailako herriko eskulaboi taldeak. Garaipenik gabe itzuli ziren bi taldeak. Izan ere, haur mailan 17na berdindu zuten eta gazte mailan 30 eta 13 galdu zuten arrasatearrek. Asteburu honetan Iturripen arituko dira bi taldeak. Bihar arratsaldeko 16:00etan haur mailakoak, Goierriren aurka. 17:30ean, gazte mailakoen txanda izango da. Hauek ere Goierri izango dute aurrez aurre.

## SASKIBALOIA
### Etxean bi taldeak

Oraindik ligan diharduten herriko bi saskibaloi taldeak ere etxean arituko dira asteburu honetan. Juniorrek puntu bakar batez galdu zuten joan den asteburuan Azpeitian, 52 eta 51. Haur mailakoek ordea, 82 eta 46 Nere Sport zaruztarren aurka egin zuten. Aste honetan haur mailakoen liderra den Loiolaren aurka arituko dira larunbatean 17:00etan. Juniorrak, berriz, 11:30ean, Ordiziaren kontra.

# Gipuzkoako gimnasia erritmikoko txapelketa Iturripen

Larunbatean jokatuko da eskola arteko Gipuzkoako gimnasia erritmikoko txapelketa. 200 bat gimnastak hartuko du parte, alebin, infantil eta haur mailan. Irun, Hernani, Donostia, Lasarte, Tolosa, Bergara, Azpeitia, Elgoibar, Azkoitia, Zarautz eta Arrasatetik, 28 ikastetxe arituko dira.



Larunbatean Gipuzkoako txapelketa eta igandean erakustaldia.

09:30ean haur taldeka soka eta uztaiarekin eta banaka mazekin eta uztaiarekin. lehiatuko dira. 12:00etan infantiletako hamar talde arituko dira uztai eta pilotarekin eta banaka sokarekin eta uztaiarekin. 16:00etan alebinetan esku libre eta pilotaz eta banaka, berriz, 20 parte hartzaile ibiliko dira esku libre eta sokarekin.

### ARRASATETIK

Arrasate Gimnasia taldetik 13 lagunek hartuko dute parte txapelketan. Alebinetan, Marta Etxebarria eta Maite Otxandiano. Infatiletan, Idurre Gartzia eta Maria Etxebarria. Haur mailan Miren Bragado, Janire Bolinaga eta Edurne Canas eta taldeka, Miren Lazkano, Edurne Elkoro, Maialen Balentziaga, Edurne Canas, Janire Bolinaga eta Miren Bragado arituko dira.

### ERAKUSTALDIA

Igandean eta 12:00etan, Arrasateko Gimnasia Taldeak gimnasia erritmikoko erakustaldia eskainiko du Musakolako kiroldegian. Emanaldia 5 urtetik 18 urtea arteko 55 gimnastak eskainiko dute.

# Otala-Zelai XXI herri krosa



Nahiz eta eguraldiari dagokionez igandekoa egun tristea izen zen, jende ugari hurbildu zen Urkulu ingurura Otala-Zelai herri krosaren 21. aldira. Garaipena mexikar batek lortu zuen. Haizea kontra izan zuela eta, Joel Hernandezek ezin izan zuen errekorra gainditu, bi segundugatik.

Bere atzetik Manu Hurtado helmugaratu zen eta hirugarren azpeitiar bat: Jabier Rodriguez.

Gazte mailan, Arrasateko hiru korrikalari izan ziren lehenengoak helmugaratzen: Fernando Nogales, Unai Elortza eta Oliver Fernandez. Jabier Mentxaka bigarren izan zen beteranoetan, Cesar Perez donostiarraren atzetik. Emakumetan Mari Karmen Gartzia hirugarren helmugaratu zen.

# Herri arteko txapelketa

Gipuzkoako herri arteko txapelketako kanporaketan 2 eta 1 irabazi zuen Arrasatek Berastegiren aurka. Haur mailan Agirrek eta Jimenezek, galdu egin zuten Saizar eta Gonzaloren aurka, 11 eta 18.

Uribarren-Dominguezek, gazte mailan, 22-3 irabazi zieten Ansa-Saizarri. Seniorretan, 22 eta 9 irabazi zuten Zugasti-Zuazubiskarrek, Egimendia-Sarasolaren aurka.

Zugasti eta Zuazubiskar, gainera, Tolosako lau t'erdiko txapelketako final zortzirenetan izan ziren larunbat goizean eta 22 eta 17 irabazi zieten Perizena eta Garmendia nafarrei.

# Emaitza onak Bidasoako itzulia hasteko

Born Jay taldeko txirrindulariek asteburu ona izan zuten.

Larunbatean laterketa istilutsua izan zen Berriatuan jokatu zena. Olarra taldeak lasterketa laga egin zuen, epaileek taldeko lau txirrindulari kanporatu ondoren Azkenean, garaipena Igor Beristain Saunier taldeko txirrindulariak lortu zuen 3'55"30 denborarekin. Jokin Lizeaga hirugarren izan zen, 36 segundura. Oskar Askasibar bosgarren helmugaratu zen, 42 segundura. Aitor Larrea, antzuolarra 8. izan zen.

Igandean Soraluze saria izan zuten jokoan. Olarra taldea izan zen nagusi, lehenengo hiru tokiak lortu zituen eta. Born Jay taldekoak hurrengo bi tokiak poltsikoratu zituen. Laugarren eta bosgarren David Sojo eta Jon del Rio, hurrenez hurren, izan ziren, liderrarengandik 40 segundura. Ruben Gonzalez 11. izan zen.

Asteartean geroztik Bidasoako itzulian ari dira Ruben Gonzalez, Jon del Rio, Jon Garraus, David Sojo, Jose Angel Blazquez, Jokin Lizeaga eta Antonio Urmeneta.

# Arrasate-Oñati lasterketa

Datorren igandean, maiatzak 16, Arrasate-Oñati lasterketa jokatuko da. Irteera Portaloitik izango da, 11:00etan. Izena emateko 1.000 pta ordaindu beharko dira. 10:30ak arte eman ahal izango da Portaloian. Denek elastiko bat jasoko dute. Zubikoa kiroldegiko dutxak ere erabili ahal izango dira.

## DOMINIKA MADINABEITIA (CIM HIZKUNTZA ESKOLAKO IRA[S

# "Hizkuntzak ikastea [...]

**60 urte ditu eta 1967tik ari da frantsesa eta alemaniera irakasten. Ingelesa geroago etorri zen. Irakasle ikasketak egin eta Aretxabaletan irakasle urtebete egin ondoren, Bergarako ikastolan bi urte egin zituen euskara irakasten. Gero Mendiolatik Parisera alde egin zuen. Hiru hilabeterako joan zen. Azkenean, zazpi urte egin zituen Euskal Herritik kanpo. Harrezkero hizkuntzak irakasten ditu, Arrasaten. Gaur egun CIM hizkuntza eskolan dabil.**

**— Nola hasi zinen eskolak ematen?**

— Alemanian nengoen eta Almenen hizkuntzak irakasteko asmoa zutela esan zidaten. Orduan ez zegoen irakaslerik eta neure lanak amaitu eta etorri egin nintzen. Eskola Profesionalean frantsesa eta Almenen frantsesa eta gaztelania ematen hasi nintzen. Gauez frantsesa, alemaniera eta ingelesa ematen genuen, Arantxa Arbuluk eta biok.

**— Garai hartan ez zen egunero jendea atzerrira joaten hizkuntza ikastera?**

— Hizkuntzak ikasten hemen hasi nintzen eta gramatika bat lortzea oso zaila zen. Alemanierako hiztegi bat aurkitzea zaila zen eta irakasle bat, ia ezinezkoa. Hori dela eta, irteteko erabakia hartu nuen. Udako oporrak pasatzera joan nintzen Parisera eta han lan egin eta ikasteko aukera izan nuen. Horrela bada, zazpi urte egin nituen, bi Parisen eta bost Alemanian.

**— Noiz sortu zen CIM?**

— Bost urte egin nituen Eskola Profesionalean irakasten eta Alberto eta Iris Vandenbergher senar-emazteei gurekin lan egiteko proposamena egin zieten. Eurek hizkuntza akademia bat zuten, ingelesa irakasteko. Orduan sortu zen CIM, beti Eskola Profesionalaren babesean.

**— Nola egin zenioten aurre irakasle faltari?**

— Hizkuntzak ikasten ari zirenek zekiten apurra irakasten zuten.

**— Garai hartan, ordea, frantsesa izango zen gehien eskatzen zena, ezta?**

— Bai, baina berehala hasi ginen ingelesa irakasten. Aldaketa poliki-poliki gertatu zen. Urteen joanean, baina, ingelesa geroz eta gehiago eskatzen zen eta frantsesa gutxiago.

**— Espero zenuen CIMek izan duen bilakaera?**

— Hasiera hasieran Jose Maria Arizmendiarrieta zegoen eta ikuspegi askoz ere zabalagoa zuen. Hizkuntzak ikasteari buruz galdetu nion eta beharrezkoak izango zirela erantzun zidan. Orduan betebetean sartu nintzen ira-



**"Hizkuntza erreminta bat da, etxetik irteteko beharrezkoa dena"**

RA SLEA)

# *teak zabaltzea da"*

kasten. Frantsesarekin hasi ginen eta Mari Karmen Sarasua etorri zen ingelesa ematera, Arantxa Arbulurekin batera. Gabriel Mendizabalek eta orduan zuzendaria zen Jabier Retegik lagundu ziguten bidea egiten. Nolakoa izan behar zen, ez genekien. Bidea ibiliaz egiten da.

**— Ikasleak aldatu egin dira?**

— Hizkuntza erreminta bat da, etxetik irteteko beharrezkoa dena. Hizkuntza irakastea ez da bakarrik eskola ematea. Hizkuntza hitz egiteko da, komunikatzeko, beste batzuekin harremanak izateko. Hori da benetako helburua, nahiz eta gazteei helaraztea oso zaila den. Eta horixe izan da nire borroka 25 urte hauetan. Hori dela eta, hasi nintzen ikasleen arteko elkartrukeak egiten.

**— Teknologiak ere bide hori jorratu duela uste duzu?**

— Ni hasi nintzenean laboratorio bat genuen (magnetofoia) eta hori azkena izango zela pentsatu genuen. Fagorren bazegoen bat eta CIM hasi zenean ere horrelako bat genuen. Gero ikus-entzunezko metodoa etorri zen. Ostean audio-linguala eta orain multimedia. Denak dira lagungarri, baina norberaren borondatea behar da.

**— CIM kooperatiba bezala sortu zen.**

— Kooperatibismoaren seme-alabak gara. Edozer enpresa egiteko kooperatibismoa zen bidea.

**— Zein da hizkuntzarik zailena irakasteko?**

— Ez dakit. Norbera hizkuntza bakoitzarekin nola sentitzen den ikusi behar da. Nik neuk alemanierarekin izan dut harremanik sakonena eta horrekin sentitu naiz agian ondoen. Ingelesa beharrak eraginda ikasi nuen.

**— Noiz amaitzen da hizkuntza bat ikasten?**

— Ez da inoiz amaitzen. Maila hazi egiten da, baina dena ez da inoiz ikasten. Hizkuntza gauza bizia da eta aldatuz doa, gizartea bezala.

**— Zer sentitzen da horrenbeste jenderi hizkuntzak irakatsi diozula jakitean?**

— Nik esaten dut irakatsi ez dudala egiten, eurek ikasten dutela. Ikasi nahi badute, ikasiko dute.

**— Zein izan da zure helburua urte hauetan guztietan?**

— Haurrei eta gazteei samurtasunez irakastea hizkuntza. Hizkuntzak ikastea ateak zabaltzea da, edo giltza atea zabaltzeko.

**— Noiz arte eskolak ematen?**

— Ez dut data zehatzik. Gauza asko utzi ditut egin gabe eta horiei helduko diet.

**Nik neuk alemanierarekin izan dut harremanik sakonena eta horrekin sentitu naiz agian ondoen. Ingelesa, beharrak eraginda ikasi nuen.**

UR ONDO
Elektrizitatea

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

# Arte erakusketa eta salmenta Harresi aretoan



50 margolan baino gehiago daude Harresi aretoan, ikusgai eta salgai.

Jabiloren lagunek arte erakusketa eta salmenta antolatu dute. Artelanak maiatzaren 11n jarri zituzten jendaurrean Harresi aretoan, eta maiatzaren 30a arte hantxe izango dira.

Santa Marinako margo taldeak, Arrasateko margo taldeak eta Jabiloren hainbat lagunek egin dituzte Harresi aretoko artelanak. Tartean Jabilok egindako margolan bat ere badago, "Arrainzopa" izenekoa. Jakin izan dugunez, erakusketak ateak zabaldu bezain laster hiru margolan salduta zeuden: Iñaki Riviereren "Luces en el horizonte", Laskurainen "Udazkena" eta Beñat Arregiren beste bat.

Margolanen salmentatik ateratako diru guztia Jabilorentzat eta bere familiarentzat izango da, dituzten gastu guztiei aurre egin ahal izateko.

Erakusketak arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara izango ditu zabalik ateak, astelehenetik ostiralera bitartean. Larunbat eta jaiegunetan, berriz, eguerdiko 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

## Al-Andalus taldearen kultura astea bukatzear



*Alegria de la Sierra* taldeko kantariak.

Asteburu honetan bukatuko da Al-Andalus taldearen kultura astea. Maiatzaren 8an hasi zuten aipatu astea, eta orduz geroztik hainbat ekitaldi izan dituzte Zigorrolako kultura elkartean: erregina eta ohorezko damaren hautaketa, antzerkiak, dantzaldiak, mahaiko jokoak…

Asteburu honetan azken txapan sartuko da aipatu astea. Maiatzaren 14an, ostiralean, "The Jurassic Band" musika taldearen emanaldia izango dute arratsaldeko zazpietan. Honen ondoren, poesia lehiaketa izango da. Gaueko 22:00etan Arrasateko "Goikobalu" abesbatzaren kantuak entzuteko aukera izango da. 22:45ean, berriz, Natalio Maiztegi saloi dantza irakasleak eta bere ikasleek hartuko dute lekukoa.

Maiatzaren 15ean "San Isidro" lehen herri lasterketari emango zaio hasiera, eguerdiko 12:00etan. Arratsaldeko 19:00etan jantzi andaluziarren desfilea izango da, eta gaueko 22:00etarako afaria antolatu dute. Gaueko 24:00etan, berriz, nahi adina dantza egiteko aukera izango da orkestra baten lagutzarekin.

Igandean emango diote amaiera kultura asteari. Eguerdiko 12:00etan domino lehiaketa izango da, eta 13:00etan luntxa eta sarien banaketa. Azkenik, arratsaldeko 19:00etan "Al-Andalus" abesbatzaren kantaldia izango da.

## "Sua", Amaia antzokian

Deepa Mehtak zuzendutako "Sua" filma izango da ikusgai datorren ostegunean Amaia antzokian. Shabana Azmi, Nandita Das, Kulbushan Kharbanda eta Jaaved Jaaferi dira film honetako aktore nagusiak. "Sua" Kanadan ekoiztu zen 1996. urtean. Ekoiztutako urte berean hainbat sari jaso zituen: Torontion ikuslearen saria, Mannheim-Heidelbergen epaimahaiaren sari berezia…

Jatetxe bateko eguneroko bizimodua islatzen du film honek. Ashok izeneko gizonezkoak zuzentzen du janari arineko jatetxea, eta bere emazte Radha da jatetxeko arima.Goiko solairuan bizi dira biak, eta baita Ashoken ama eta anaia Jatin ere. Gehiago jakin nahi duenak, bakadi.

ARITZ IÑURRITEGI, KOMIKI LEHIAKETAN 1. SARIA

# “Komikietan zirrara handiena marrazkiak sortzen du”

**Aritz Iñurritegik lehen saria eskuratu du Hies-Ekimenak antolatutako komiki lehiaketan, 15urtetik 18 urtera bitartean. 17 urteko arrasatear honek marrazteko zaletasun handia du, baina aurrez sekula ez du komiki lehiaketetan parte hartu.**



**— Zertaz dihardu zure komikiko istorioak?**

— Diskoteka batean elkar ezagutzen duen bikote gazte bat da. Elkar ezagutu ondoren, harremanetan hasten dira gero, baina mutilak ez du kondoirik. Horregatik, neskak ez du larrurik jo nahi. Mutilak “telekondoi” zerbitzura hots egiten du gero, kondoi bat erosteko.

**— Zerk bultzatu zintuen lehiaketa honetan parte hartzera?**

— Hies Ekimena taldeak egindako deialdia eta oinarriak ikusi ondoren, animatu egin nintzen. Etxean ere, behin eta berriz errepikatu zidaten lehiaketan parte hartzeko.

**— Marrazteko zaletasuna aspalditik duzu?**

— Bai. Betidanik gustatu izan zait marraztea. Aspertuta nagoenean ere, egiten dudan lehenengo gauza papera eta arkatza hartu eta marrazten hastea izaten da. Dena den, ikastolako ekintzaren batean edo hartu izan dut parte marraztuz, baina hau lehenengo lehiaketa izan dut.

**— Zein estilo erabili duzu komikian?**

— Japoniarrek sarri erabiltzen duten “manga” estiloa erabili dut; “Dragoi Bolak” marrazki biziak, adibidez, estilo horretan eginda daude. Komiki guztia arkatzez eginda dago, arkatz bakarrarekin.

**— Zenbat denbora behar izan duzu komikia egiteko?**

— Denbora dexente igaro dut. Berandu hasi nintzen komikia egiten, lanak aurkezteko epea bukatu baino egun gutxi batzuk lehenago, eta ordu asko eskaini dizkiot.

**— Ideia asmatzea, gidoia idaztea edo marrazkiak egitea egin zaizu zailago?**

— Buruan neukan hori marraztea egin zait zailena. Ideia moldatzea ere kostatu zitzaidan. Komiki batean zirrara handiena sortzen duena marrazkia da, baina gidoiak ere ona izan behar du nire ustez.

**— Hies Ekimenaren “Soo Bitxo” komikia ikusi duzu?**

— Bai. Ongi landutako komikia da Ibai Garaik egin duena.

## “Aspertuta nagoenetan, marrazten hasten naiz”

## aste gazte

**■ UDARAKO EKINTZAK**

• Udan zer egin jakin gabe baldin bazaude, Gazte Bulegoan dugu zenbait informazio interesgarri: hizkuntza egonaldiak Segurako aterpetxean, brigada internazionalistak, auzolandegiak... Baduzu non aukeratu!!

**■ LANA**

• Erizaintzako diplomatuak edo osasun laguntzaile teknikoak behar dira Bergarako Mizpirualde Adinekoen Egoitzan. Epea: maiatzak 21.

• Añanako Kuadrilak udalekuetarako begirale eta zuzendariak behar ditu. Titulua izatea, euskara jakitea, esperientzia... baloratuko dira. Epea: maiatzak 24.

**■ LEHIAKETAK**

• Galdakaoko Udalak antolatua, X Komiki lehiaketa. Komikiak bi orrialdeko luzerakoak, sekula lehiaketaren batean aurkeztu edo argitaratu gabeak. Epea: maiatzak 27.

**■ IKASTAROAK**

• Sakontze mailako Karibeko dantza ikastaroa. Maiatzaren 24an hasi eta ekainaren 21a arte. Astelehen eta asteazkenetan, 19:30etik 21:30era Musakolako Gazte Txokoan. Matrikula 4.000pta/2.500 ikasle eta langabeentzat.

• Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak antolatua, hastapena eta ziurtasuna goi mendian, haitz alpinismo ikastaroa, ekainaren 5ean eta 6an Midi d´Ossaun egingo da.

• Debako Arte Eskolak, udarako ikastaroak antolatu ditu: grabatu kalkografikoa hastapen mailan, zura, zeramika, marmol eskultura, brontzea... Epea: ekainak 21.

**Berri gehiagorako:**
**GAZTE ZERBITZUA**
**☎ 943 77 00 65**



Urtero bezala, astoa jaietako maskota izango da.



Maier Uranga Musakolan izango da jai giroa jasotzen.

# Musakolako jaiak ATBn

Ohi bezala ATBk herri eta auzo desberdinetako jaiak zuen etxetaraino eramateko ahalegina egingo du. Horrela, aste bukaera honetan ospatuko diren Musakolako jaiak ikusi ahal izango dituzue asteazken gauean. Aurkezle lanetan Maier Uranga izango da. erretiratuen arteko bolo txapelketa, afaria, pilota partidak, motorzaleen bilkura, urrezko astokiloak, soka tira, herri bazkaria... izango dira ikusgai. Musakolaren independentzia aldarrikatzeko egingo den kale agerraldia ere ikusiko da, nola ez! Piztu, bada, ATB asteazkenean, gaueko 21:30ean. Ez zarete damutuko.

### JON ARANBARRI KALEIDOSKOPIOAN

Jon Aranbarri ballet irakaslea izango da Unai eta Maiderrek zuzentzen duten Kaleidoskopioa saioko gonbidatua. Jon Aranbarri 34 urteko mondragoetarra dantzari profesionala da. Donostian eta Zaragozan egin zituen dantza ikasketak eta gaur egun dantza irakaslea da. Maiatza Dantzan proiektuan sartuta dago buru--belarri eta horri buruz hitz egingo digu Kaleidoskopioan. Izan ere, Maiatza Dantzan ekitaldien barruan "Miarritze Balleta" izango da Arrasaten. Honen guztiaren berri ATBn, ostegun gauean.

## ▪ *ATBren programazioa*

**LARUNBATA, 15**

13:30 Asteko programarik interesgarrienen errepika: Jolasplast, Musiklasik, Aurrez Aurre, Kaleidoskopioa, Soinuz Blai eta Astebete.

**IGANDEA, 16**

13:30 Asteko programarik interesgarrienen errepika: Jolasplast, Musiklasik, Aurrez Aurre, Kaleidoskopioa, Soinuz Blai eta Astebete.

**ASTELEHENA, 17**

13:30 Albiste aurrerapena.

13:35 Astebete errepika.

20:00/20:30/21:00 Berriak.

21:30 Mondrasport Itxaro Zubillaga kazetariak aurkezturik, asteburuko kirolei errepasoa.

**ASTEARTEA, 18**

13:30 Albiste aurrerapena.

13:35 Mondrasport (errepika).

19:20 Jolasplast. Mikel Lizarraldek aurkeztutako haur jolasen saioa.

20:00/20:30/21:00 Berriak.

21:30 Munduari Bueltaka. Gari Kortazarrek aurkeztutako bidaia saioa.

**ASTEAZKENA, 19**

13:30 Albiste aurrerapena.

13:35 Munduari Bueltaka (errepika).

20:00/20:30/21:00 Berriak.

21:30 Musakolako jaiak. Maier Urangak aurkeztutako saio berezia.

**OSTEGUNA, 20**

13:30 Albiste aurrerapena.
13:35 Musakolako jaiak (errepika).
20:00/20:30/21:00 Berriak.
21:30 Kaleidoskopioa. Aitziber Langaranek eta Unai Iparragirrek aurkeztutako saioa. Aste honetan Maiatza Dantzan dela eta, Jon Aranbarri ballet dantzari arrasatearra izango da.
22:00 Soinuz Blai. Edu Abasolok aurkezten duen musika saioa.

**OSTIRALA, 21**

13:30 Albiste aurrerapena.

13:35 Kaleidoskopioa (errepika).

20:00/20:30/21:00 Berriak.

21:30 Astebete. Astean zehar gertatu diren albiste garrantzitsuenen errepasoa, Maider Osak aurkezturik.

22:00 Soinuz Blai. Edu Abasolok aurkezturiko musika saioa.




Infovia Plus edo Internet bidez lotura egin ondoren, Euskadiko Kutxaren web orrian sartuko zara, **http: //www. cajalaboral.es** helbidean.

Gure orrietan produktu eta zerbitzuen berri aurkituko duzu, mailegu simulatzaileak, erakundeen informazioa, aholkularitza zerbitzuak, gazteentzako informazio orriak, etab.

Bisitaldiak informazio asko eta aholku praktiko ugari eskainiko dizkizu.

# Hain erraza, hain samurra

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxebizitza salgai Bergarako erdigunean, 70 m². Tel.. 943 76 15 40.

### 3. Errentan emateko

• Gela bat daukat alokatzeko erdialdean. Tel.: 943 79 68 00.

• Zarautzen etxebizitza alokatzen da. Uztailean edo abuztuan. Hiru logela, egongela eta bi komun. Tel.: 943 83 12 53.

• Torreviejan apartamentua alokagai. Bi logela, jangela-egongela, etab. Hondartzatik 100 metrora. Tel.: 943 77 03 85.

• Bungalowa alokagai Peñiskolan, uztaileko eta abuztuko lehen hamabostaldietan. Tel.: 943 77 05 88.

• Apartamentua eta bungalowa alokagai Torreviejan eta Santa Polan, hondartza ondoan. Tel.. 943 79 32 54.

### 4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza nahi dugu alokatu, Arrasaten edo inguruan. Tel.: 94 447 04 61.

• Gela alokagai erdialdean. Tel.: 943 79 87 59. Teresa.

• Gela bat alokatu nahi dut etxebizitza bat osatzeko. Tel.: 945 39 37 50 gauez, eta 943 79 79 88 goizez. Eder.

• Lau ikaslek etxebizitza bat alokatuko lukete. Tel.: 630 37 61 50 (Andoni).

### 5. Etxeak osatzeko

• Gela bat alokatuko nuke erdialdean. Tel.: 943 79 68 00.

• Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da Arrasate erdialdean. 943 79 59 60. Ramon.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Garaje itxia salgai Larrea aldean. 2 m², eta bi autorentzako lekua dauka. Tel.: 943 79 69 41. (Mari).

• 15 m²ko garaje itxia salgai Larrea kalean. Tel.: 943 79 14 77.

• Garaje itxia salgai Iturripe eta Eskola Politeknikotik gertu. 20 m². Tel.: 943 79 34 70.


**ETXEBIZITZAK**
1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

**GARAJEAK**
7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

**LOKALAK/ORUBEAK**
12. Saldu
13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

**LANA**
17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

**IRAKASKUNTZA**
20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

**MOTORRA**
23. Saldu
24. Erosi
25. Bestelakoak

**DENETARIK**
26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

**HARREMANAK**
34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak


**943 71 25 11**

**ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)**

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

### 9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokatzen da Erguin auzoan. Tel.: 943 79 13 97.

• Garaje bikoitza alokagai. Tel.: 943 79 13 56. Josu.

• Garaje itxia alokatzen da Musakola aldean. Tel.: 943 77 16 03.

• San Andres auzoan garaje lekuak salgai. Tel.: 608 77 07 86.

### 10. Errentan hartzeko

• Garaje bat alokatuko nuke Olarte kalean. Tel.: 79 16 39.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• 60 m² zabal eta 4 metro garai den lokala salgai edo alokagai. Erdialdean, argitsua. Gaur egun ile apaindegi eta edertze areto bezala erabiltzen da. Bitarte 17, eskuina. Tel.: 943 77 12 70.

### 14. Errentan emateko

• Toki bat alokatzen da Anboto kalean. 75 m² ditu. Tel.: 943 79 98 07 (gaueko 21:00etatik aurrera).

• Bi toki alokatzeko, 120 eta 130 m²koak, batera edo bakarka, San Andreseko industria pabilioietan. Tel.: 608 77 07 86.

• Goxoki denda bat alokatzen da Kontzeziño kalean. Tel.: 943 77 10 97.. 21:00etik aurrera deitu.

### 15. Errentan hartzeko

• Garaje edo toki txiki bat alokatuko genuke. Tel.: 943 79 72 93.

## LANA

### 17. Eskaintza

• Emakume bat prest pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Tel.: 943 77 04 60. Margari.

• Neska euskalduna etxeko lanak egin, umeak zaindu eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo egun osoz. Interesatuak deitu: 943 79 45 16. Bego.

• Esperientziadun emakumeak umeak zainduko lituzke, goizez eta arratsaldez. Tel.: 943 79 97 11. Conchita.

• Zazpi urteko esperientzia duen jatetxe zerbitzaria lana egiteko prest. Tel.: 943 77 08 13. Carmen.

• Tabernan lan egingo nuke. tel.: 943 76 46 07.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

### 18. Eskaerak

• Jatetxe batean mahaiak zerbitzeko neska behar da asteburu eta jai egunetarako. Tel.: 71 64 70.

• Neska behar da fruta denda batean lan egiteko. Tel.: 943 77 01 79.

• Ile apaindegi laguntzaile bat behar da, asteburuetarako. Tel.:943 77 09 44.

• Emakume bat behar da pertsona nagusiak zaintzeko. Harremanetarako dei telefono hauetara: 943 79 66 96 edo 943 79 94 58 (19:00etatik 20:00etara)

• Sukalde laguntzailea edo sukaldean esperientzia duen pertsona behar da, jatetxe batean lan egiteko. Tel.: 943 71 64 70.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Margolaritza eskolak ematen ditut, marrazki artistiko eta olio estiloetan. Gaztetxean galdetu.

• Biologian lizentziadunak kimika eta matematikako eskola partikularrak emango lituzke. Tel.: 943 79 16 39. Amaia.

• Lehen eta bigarren heziketarako eskola partikularrak ematen dira. Tel.: 943 79 83 46.

• Ingeleseko eskola partikularrak emango nituzke. Tel.: 943 79 01 06.

### 21. Eskaerak

• Marrazketako eskolak hartuko genituzke, COU eta FP2ko mailakoak. Tel.: 943 79 25 94.

• Eskola partikularrak. DBH 4. mailako matematikak hartzeko. Tel.: 943 79 04 89. Idurre.

• Eskola partikularrak emango lukeen neska bat behar da. DBH 3. mailan. Tel.: 943 79 62 08.

• ESOko 1. mailako eskola partikularrak emateko pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 60 01.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Aprillia SR 50 motorra salgai, ia berria eta bermearekin. Tel.: 649 67 28 54.

• Auto bat salgai Super 5 7-L 1.500. Matrikula SS-AD. Tel.: 943 79 65 43.

• Opel Corsa 16 autoa salgai. Matrikula: V-K. Tel.: 609 28 65 82. 20:00etatik aurrera.

• Yamaha YZ Motocross salgai. 94. urtekoa da, egoera onean dago eta 300.000 pta.tan saltzen dut. Tel.: 943 79 78 36. Unai.

• Peugeot 309, GTI (SS-Z) saltzen dut. Tel.: 943 79 74 65 edo 619 812 090, prezio onean.

• Opel Calibra 2-OI 559203AL salgai. Tel.: 943 71 41 13.

• Motorra salgai. Suzuki GSX 750R. Tel.: 943 79 70 96. Felix.

• Super 5 GTSa salgai, estra eta guzti. Tel.: 649 06 94 71.

• Renault Espace 2.1 TD salgai. Egoera onean. Tel.. 943 79 26 16 / 943 79 68 31 (Urtzi).

• Ford Escort RS turbo salgai. Matrikula SS-AG. Tel.: 943 72 59 90. Gauez deitu.

• Honda Shadow 1100 motorra salgai. Oso egoera onean, estra askorekin. Osagai orijinalak oparitan. 1.180.000 pta. Tel.: 943 00 81 15 (Jabi).

• Wolkswagen Golf GTI, SS-AF matrikula, salgai. Tel.: 943 77 04 87 / 670 40 41 20.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Auñamendiren Euskal Herriko Entziklopedia orokorra ilustratua salgai. Prezio onean eta egoera ezin hobean. Tel.: 943 79 12 95.

• Karabanako ispilu pare bat salgai. Ia berriak daude eta 5.000 pta balio dute. Tel.: 943 78 12 73. Jaione.

• Pentax Z-1 argazki kamera, 28-80 objetiboduna, eta FTZ-400 flasha saltzen ditut. Oso gutxitan erabilita. Tel.: 943 79 21 35.

• Euskal artzai zakurra, arra, salgai. Tel.: 943 78 34 79.

• Tamaina handiko Conver-13 bat salgai, 8 bat urtekoa, ongi mantendua eta prezio onean. Tel.: 943 79 22 28.

### 27. Erosi

• 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. Tel.: 943 71 50 87.

### 29. Eman

• Lau katakume oparitzeko. Nahi duenak, deitu 943 79 97 84 telefonora. Xabi.

### 31. Galdu

• Martxoaren 27an Canon markako argazki kamera galdu nuen Ostarkun. Tel.: 943 77 09 56 (Tania)

• Telefono mugikor bat galdu da Alcatel markakoa eta gris kolorekoa: Monterron aldean galdu zen, apirilaren 14an. Aurkitzen duenak deitu 943 79 52 08 telefonora. Eskertuko da.

• Bi txakur galdu dira, bata seterra txuri eta kanela kolorekoa eta bestea pointer zuri-beltza. Sarituko da. Tel.: 943 79 20 24.

• Zigorrola eta San Andres artean urrezko belarritako bat galdu nuen (harri urdin eta zuri batekin) Maiatzaren Lehenean. Tel.: 943 79 65 45.

• Maiatzaren 2an, igandean, eskuturreko bat galdu nuen San Andresetik Altamirara bidean. Topatu duenak dei egin dezala, mesedez, 943 79 29 24 telefonora.

• Graduatutako betaurrekoak galdu dira Musakola auzoan. Aurkitu dituenak dei egin dezala, mesedez, 943 79 53 041 telefonora. Sarituko da.

### 32. Aurkitu

• Uribarri inguruan katu zuria topatu dugu. Jabeak dei egin dezake 943 79 51 21 telefonora.

## HARREMANAK

### 37. Bestelakoak

• Orrialde hauetako irakaskuntza saileko eskaeretan agertzen den "gaztelaniazko eskolak hartuko nituzke" iragarkiarekin deia hartu zuenak, mesedez deitu berriz ere 943 79 79 12 telefonora

Zapatak Tatuajeak Arropak
Zapatak Tatuajeak Arropak
Zapatak Tatuajeak Arropak
Zapatak Tatuajeak Arropak

TOTEM

Bodypiercing-a
Bodypiercing-a
Bodypiercing-a
Bodypiercing-a

☎ 943 79 49 72 / 943 79 44 88
Zarugalde, 14 • ARRASATE



1942. urteko San Isidro jaiak dira hauek, Zigorrolan. Orduko jaietan Felix Aranzabal, "Angiozarko Itsua", kalean gora eta behera ibiltzen zen, bere infernuko hauspoarekin egundoko giroa sortuz. Ordurako Zigorrolarekin hain lotuta dagoen asto gainean joaten zen soinua jotzen. Albo bietan, astoari ondo oratuz, Felix Ajuria eta Simon Arregi.

Orduan batzokia egon zen tokian jotzen zuten erromeria Felix Aranzabalek eta Felipe Vitoriak, honek jazbana jotzen. Hirugarren egunean, aldiz, Julian Aranzabalek hartzen zuen txanda. Euria egiten zuenean, berriz, kokildu barik, Axerikua baserriaren teilapera joaten ziren, soinu eta guzti. Musika bukatzen zenean, Txosako tabernara joan eta errepide erdi-erdian dantza egiten zuten; izan ere, "orduan 20 minutuko tarteekin pasatzen ziren autoak eta ez oraingo moduan".

***Argazkia eta berriemaleak:***
*Felix Ajuria, Simon Arregi eta Benito Barandiaran.*

LASAGABASTER-en

LASAGABASTER

AUKERARIK ONENA

DOCKERS®
pants by
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



# ERNE GAZTE, HEZIBIDEREN ALDEKO APOSTUA

## ERRENTA SEGURUA

**HEZIBIDE**
Hezkuntza Taldea

**ALMEN ESKUALDEKO IKASTOLA**
ETA
**ARRASATEKO IKASTOLA**
SAN FRANTZISKO XABIER - SAN VIATOR

bi aukera anitz bezain osagarri honako ikasketak egiteko

### 1 BATXILERGO AUKERA GUZTIAK

- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- TEKNOLOGIKOA, ESKOLA POLITEKNIKOAk ikastoloi transferitutakoa eta bere aholkularitzapean garatutakoa. Lanbide Heziketako tailerreko praktikak ingeniaritzarako konbalidatuta.

### 2 UNIBERTSITATE IKASKETAK

UNIBERTSITATEKO IKASKETA GUZTIETARAKO, EGUN DAUDEN UNIBERTSITATE GUZTIETAN, ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDEA.

### 3 ETA LANBIDE HEZIKETA

- GORPUTZ ETA KIROL EKINTZAK (ALMEN ikastola)
- IRUDI PERTSONALAREN AHOLKULARITZA (ALMEN ikastola)
- ANALISI ETA KONTROL KIMIKOA (ALMEN ikastola)
- INGURUGIRO KIMIKA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- INGURUGIRO OSASUNA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- OSASUNGINTZAKO DOKUMENTAZIOA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- ERIZAINTZAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK (ARRASATEko ikastola -San Viato
- ILEAPAINKETA (ARRASATEko ikastola -San Viator)

AURREMATRIKULAZIOA: EKAINAREN 1 ETIK 9 RA

MATRIKULAZIOA: UZTAILAREN 1 ETIK 9 RA

| | "Ate Ireki" eguna | Bilera informatiboa | Ordua | Tokia | Kontakturako pertsonak | ✆ |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ALMEN IKASTOLA | 99 / 5 / 19 Almen 16:30 | 99 / 5 / 19 | 18:00 | Almen | Josebe Murumendiaraz | 943 71 49 07 |
| ARRASATEKO IKASTOLA | 99 / 5 / 20 San Viator 16:30 | 99 / 5 / 11 | 18:00 | San F. Xabier | Margari Gorrotxategi | 943 79 64 79 |
| | | 99 / 5 / 20 | 18:00 | San Viator | Idoia Urrutia | 943 71 24 90 |

ALMEN IKASTOLA

SAN VIATOR IKASTOLA

SAN FRANTZISKO XABIER IKASTOLA




SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42

FAGOR